

## Hamar urteko ibilbidea egin du ELTZIAK

Apirilaren 18an ospatuko da Eltzia Eguna

### SUPITUKI SHOW



Inprobisatutako antzerki ikuskizuna aurkeztuko du Egoitz Aizpururen taldeak apirilaren 19an

### ESKUBALOIA



Euskal Kopako finala jokatuko dute Oñatin Bera Berak eta Zuazok, apirilaren 10ean

### XABIN EGAÑA



Artista oñatiarraren lana eta ibilbidea ulertzeko liburua idatzi du Fernando Golvanok

# "Eltzia erreferentziako espazio eta topagune bihurtu da sorkuntzarako, elkarlanerako eta herrigintzarako"

> Hamar urteko ibilbidean, Eltzia sortzen eta gorpuzten parte hartu duten herriko eragileen lana eta konpromisoa aitortu eta eskertu du Udalak

> Apirilaren 18an Eltzia Eguna ospatuko da, herritar guztiei irekia



U daleko ordezkari Anik Zubizarreta eta Onintza Andres, eta Eltzia-ko Koordinazio Taldeko Maialen Altuna, Miren Arregi eta Eneko Ibabe,

Hamar urteko ibilbidea osatu du Eltzia, eta aukera paregabea dela iritzi dio Udalak atzera begiratu, urte hauetan egindako bidea aitortu eta bide hori egiten lagundu duten herriko elkarte, talde, kolektibo eta norbanakoei eskerrak emateko. "Jende askoren ilusioa, lana, energia, denbora eta buruhaustek daude proiektu honen atzean, eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei", adierazi zuen Anik Zubizarretak, udaleko Pataidetza eta Garapen Komunitarioko batzordeburuak, Eltzia-ko Koordinazio Taldeko (EKT) zenbait kiderekin batera emandako prentsaurrekoan.

Hamar urte hauetan gizar-tea asko aldatu da, batez ere dinamika kolektiboegi dagokieenez, eta Eltzia ere nabaritu ditu gorabehera horiek, baina, hala ere, unean uneko errealitate eta beharretara egokitzen jakin duela azpimarratu zuen Zubizarretak.

"Aldatu ez dena, Eltzia-aren sorrerako helburu edo asmoa da", gaineratu zuen udaleko

ordezkariak: "Komunitate-entzatearen aritzea, lankidetzaren publiko-sozialaren esparruan. Urte hauetan Eltzia erakutsi du posible dela beste modu batera aritzea, eta, ildo horretan, helburua ez da aldatu: komunitate ikuspegi batetik herriko elkarte, talde eta kolektiboek beraien jarduna garatu, partekatu, elkarlanean aritu eta saretzea posible egiteko baldintzak eta aukerak arakatzeko jarraitzen du Eltzia".

Eltzia eraikina (4.000 m<sup>2</sup>-ko azalera) egokitzen egindako ahalegina gogoratzeaz gain, "benetako lorpena, bidean sortu diren harremanak dira", azpimarratu zuen Zubizarretak: "Eltzekideen artean, Eltzia eta Udalaren artean, eta Eltzia eta herritarren artean". Ildo horretan, komunitate edo kolektibotasun sena mantentzearen garrantzian jarri zuen fokua. "Eraikin eder bat daukagu, talde eta jende asko dabil hemen egunero, izaera eta dinamika ezberdineko talde eta eragileak,

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

**ETXIAN**  
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)

baina jendeak ez du berez komunitatea sortzen. Horregatik oso garrantzitsua da Eltzian dabilzan taldeak kolektibitateko parte sentitzea, 'GU' baten parte direla barneratzea, eta 'Eltzekide' izateko gogoia edukitzea".

Bere momentuan Udalak apustu inportantea egin zuen Eltzian alde, eta aurrerantzian ere proiektua babestu eta baliabideak eskaintzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen zinegotziak. "Gaur egungo gizartean ematen ari diren aldaketa guzti hauekin –biztanleriaren zahartzea, bakardadea, aniztasuna...– inoiz baino beharrezkoagoak dira Eltzia bezalako azpiegitura sozialak, komunitatea erdigunean jarriz, testuinguru ahalduntzaileak eskaintzen dituztenak", gehitu zuen Onintza Andresek, udaleko Partaidetzako teknikariak.

### 25 TALDE ETA 500 ERABILTZAILE

Udalak eta 'Eltzia. Herri-Sormenaren Etxea' elkarte sozio-kulturalak sinatutako hitzarmenaren arabera –azkena 2023an sinatu zen, lau urterako–, Udalak bere gain hartzen ditu Eltzia eraikinaren hornidura –argia, ura,



Igogailua jarri du Udalak Eltzian,

**» Gaur egun herriko 25 taldek dute egoitza Eltzian. Horietako batek 30 bat musika talde biltzen ditu. Beraz, guztira, 500 erabiltzaile, gutxi gora behera.**

gasa...– eta mantenu orokorrari dagozkion gastuak, eta urtez urte egiten diren inbertsioak ere. Azkeneko obra, adibidez, mendebaldeko bolumenean igogailua jartzea izan da, irisgarritasuna hobetzeko. Horiez gain, Udalak dirulaguntza bat ematen dio urtero Eltzian –35.000 euro azken urteetan– eguneroko dinamizari aurre egiten la-

guntzeko.

EKTko ordezkariak emandako datuen arabera, egun herriko 25 taldek dute egoitza Eltzian. Eta ez da ahaztu behar, horietako batek –*Sai Zoi Bele* kolektiboak– 30etik gora musika talde biltzen dituela bere baitan. Beraz, denera, 500 erabiltzaile ditu, gutxi gora behera, Eltzian.

Barne funtzionamenduari dagokionez, erabakiak modu horizontal eta asanblearioan hartzen dira Eltzian. Horrez gain, talde ezberdinetako sei kidez osatutako Koordinazio Taldea dago, eta mantenu lanez arduratzen den lau laguneko beste talde bat ere bai, aldi behin txandakatu joaten direnak.

### DINAMIZATZAILE BERRIA

Eltzekideen arteko hartu-emanak sendotu, sinergiak baliatu eta komunitate sena indartzeko asmoz, komunikazio plana egin zuten Eltzian 2023an. Horrekin batera, dinamizatzailearen figura ere sortu zuten, eltzekideen arteko zubi lana egiteko. Eneko Ibbek da, egun, dinamizatzaile lanetan diharduena, eta arratsaldero egoten da Topagunean, behar duenari laguntzeko. ■

## ELTZIA EGUNA

### APIRILAK 18

Apirilaren 18an, larunbata, ospatuko da aurtengo Eltzia Eguna. Eltzekideak elkarrekin egoteko eta bizipenak partekatzeko eguna izaten da, baina antolatutako ekintzak herritar gutzietara irekiak dira. Egun osoko egitaraua prestatu dute.

### EGITARAUA

- 10:30 Yoga saioa
- 12:30 Bafle-poteoa auzoko tabernetan
- 14:30 Bazkaria. Bazkalondoan Lagun Leku elkarteok girotutako bingo saioa.
- 18:00 Karaokea. Ondoren, *Zentzu Okerra* taldearen kontzertua

**Oharrak:** Bazkarirako txartelak Eltzia tabernan daude eskuragai. Eguraldia ona bada Eltzia aurrealdeko zabalgunean egingo da bazkaria eta gainerako ekitaldiak. Eguraldia txarra bada, Eltzian Topagunean.

Lan bide HEZIKETA

ZATOZ

ATE IREKIETARA!

ATE IREKIAK

Apirilak 22 18:00etan

Ferixalekuan (Arrasate)

www.arizmendi.eus

arizmendi ikastola PRO

Goi mailako heziketa zikloa

Erdi mailako heziketa zikloa

Erdi mailako heziketa zikloa

Erdi mailako heziketa zikloa

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza


Erizaintzako zaintza osagarriak

Mikro-informatika sistemak eta sareak

Osasun larrialdilak



# Xabier Egañaren lanaren monografia plazaratu du Fernando Golvanok



**Apirilaren  
17an, ostirala,  
aurkeztuko  
dute liburua  
kultur etxeko  
zine aretoan,  
18:00etan**

> Artista oñatiarraren artelanen katalogo zabalaz gain, arteaz zuen ikusmoldea, bere ideien eta obren azterketa, eta haren gertuko lagunen testigantzak ere jasotzen dira liburuan, besteak beste.

Xabier Egaña Azurmendi (Oñati, 1958 - Gasteiz, 2006) artista oñatiarraren heriotzaren hogeigarren urteurrenarekin bat etorriz, '**Xabier Egaña. Munduko collage handiari forma ematea**' liburua idatzi du Estetika eta Arteen Teoria arloko Filosofian Doktoa den Fernando Golvanok, artea konpromiso modura, eta ez forma edo teknika soil gisa, ulertzen zuen artista poliedrikoa izan zenaren figura, balioa eta lana ezagutzera eman eta gogoratzeko helburuarekin.

"Xabier ez zuen erakusketa antologikorik egin bizirik zela, eta bere senide eta lagunen artean haren figura erreskatatzeko beharra ikusten genuen; ezagutzera emateko Xabier izanena, nolabait esatearren, libertarioa, bidaiaria, artearen ikuspegi oso pertsonala zuena –merkantilistotik ihesi hein handi batean–, eta teknika zein materialetan ikertzea gustuko zuena. Halaxe sortu zen liburu bat idazteko aukera, hasiera batean zerbait apalagoa izango zena, baina, poliki poliki, hazten joan dena, monografia moduko hau osatzeraino. Uste dut lan nahiko konpletua dela; bere lanen lagin zabalak jaso dugu liburuan, eta

uste dut Xabierren ibilbidea, ekarpena eta legatua ezagutzeko aukera ematen duela, eta, era berean, haren figura gogoratzeko eta omentzeko ere balioko duela", azaldu du Golvanok.

Lan ederra da, zinez, 400 orrialdetik gorakoa liburutzarra, gaztelaniaz eta euskaraz idatzia –Felipe Juaristi poetaren itzulpenarekin–, eta bloke edo atal nagusi bat du, 150 orrialde ingurukoa, non Xabierren lan asko ikus daitezkeen, bere bizitzan eta ibilbide artistikoan izan zituen etapa eta kezka ezberdinen erakusle direnak.

Liburua, baina, Fernando Golvanok berak Xabierren obrari buruz egin duen analisi zabal eta sakon batekin hasten da. "Bere ibilbidea eta praktika artistikoa bultzatu zuten asmoak azaltzen saiatu naiz. Hastapenetan figurazio espresionista baten alde egin zuen Xabierrek, formatu handiko mihisetan islatzen dena, kromatismo biziko eta keinu indartsuko autorretratu bidez. Gero, 1990ean hasten den fase kontzeptualago bat dago, non aforismoak eta beste elementu batzuk (naturako soinuak...) ere txertatzen dituen bere lanetan, meditatzen gongoratzen dutenak; Hor bazegoen, jada, ekarpen aitzindari bat. Laurogeita hamarreko hamarkadan zehar bere lan pikturikoa paisaiara eta zeinu alegorikoko abstrakzio batera zuzenduko da gehiago, Alemaniako tradizio erromantikoko jarraiki. Ibilaldizale amorratua zen Xabier, zeharkaldi luzeak egin ohi zituen Piriniotan, Alpeetan, Laponian... eta horren guztiaren zati handi bat grafiatuta eta idatzita geratu zen bere bidaia-koaderno zoragarrietan. Ibiltzea ekintza artistiko gisa bizi zuen Xabierrek, eta zeharkaldi bakoitzean testu laburren konstelazio bat sortzen zuen –oharrak, aforismoak, bere bilakaerari eta krisiei buruzko memoriak...–. Bidaia bakoitza esplorazio katartikorako modu bat zen. Hizkuntza plastikoa eta literarioa uztartuz bi bidaia-liburu zoragarri –*Oinez* (1998) eta *Erreomes baten egunerokoa*



Udaletxeko sarrerak nagusian dago ikusgai Egañaren 'Aitaren kezka' azterlana.



Xabinek idatzitako bi bidaia-liburuak. Beheran auto-erreturatua eta Saz le Bolo taldearen diskoaren azala



Xabin bere estudioan, Oñatiko Gaztelekurako 'Sasi guztien gainetik' artelana prestatzen ari zela. Behean, etapa ezberdinetako zenbait margolan



(2001)– argitaratu zituen, eta hirugarren bat amaitu gabe geratu zen Xabinen ustekabeko heriotzagatik. Atal bat merezi du, halaber, Xabinek Polaroid-aren erabilerarekin egin zuen lanak; 1990ean New Yorkera egindako bidaia baten ostean izan zen, eta hau ere nahiko berritzailea izan zen, proposamen formal eta kontzeptual berri bat ekarri baitzuen; bere ikerketa gorputz zatikatuaren ideian oinarrituko du, gorputz minduaren adierazle gisa. Saiatu naiz, azken batean, Xabinek arteaz zuen ikusmoldea azaltzen, interesatzen zitzaizkion egileak, norekin hitz egiten zuen bere lanetan...; haren ibilbide artistikoa hobeto ulertzeko aukera ematen duten kontrapuntu estetiko, filosofiko eta bitalak ematea izan da helburua”, azaldu digu Golvanok.

Liburuan Xabinen beraren hainbat idatzi eta gogoeta ere biltzen dira, eta bada **Lagunen artean** izeneko atal bat, non Xabinekin harreman estua izan zuten lagunak eta senideen kolaborazio batzuk biltzen diren, artistaz eta bere lanaz mintzo direnak. “Xabin oso eskuzabala izan zen beti artista eta lagunekin”, azpimarratu digu Golvanok; “laurogeita hamarrek hamarkadaren

hasieran, adibidez, ARMAKINA sortu zuen, diseinu-estudio moduko bat, erreprografia sistema indartsu batekin, hainbat ekoizpenetarako espazioa izango zena: diseinu grafikoa eta eszenografikoa, diaporamak, edizio digitalak... Artista asko igaro ziren bertatik eta proiektu ugari sortu ziren bertan”.

“Merkatu dinamikatik urrun mantendu zen Xabin, eta eszena alternatiboarekin oso lotuta egon zen”, erantsi du Golvanok. Gogora ekarri du, adibidez, *Hala Bedi* irratiarekin, Gasteizko

irradi libre mitikoetako batekin, izan zuen kolaborazio estua . “Dirua eman zuen eskuzabaltasunez, irratirako ekipoak berriro erosi ahal izateko, polizia konfiskatu zizkionean”.

Xabinen inkonformismoa azpimarratu digu Golvanok. “Oso artista poliedrikoa izan zen; aitzindaria izan zen teknika ezberdinak erabiltzen, eta beti izan zuen idazteko zaletasuna, pentsatzekoa. Pentsamenduaren irakurle handia zen Xabin, eta benetan interesatzen zitzaiona zera zen, marrazteko zeukan gaitasun miresgarri hori dentsitate etiko, poetiko eta kritiko oso baliotsua zuen proposamen plastiko batean islatzea”. •



**Xabinen ibilbide artistikoa hobeto ulertzen laguntzen duten kontrapuntu estetiko, filosofiko eta bitalak ematen saiatu naiz. Bere lana ezagutzea da Xabinen balioa hobekien apeziazteko eta hura gogoratzeko modurik onena**


## AURKEZPENA OÑATIN

Liburuaren aurkezpena Oñatin egingo da **apirilaren 17an**, ostirala, kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan. Liburuaren egile Fernando Golvanok gain, Xabinen oso laguna zen Kepa Landaluze artista arrasatearrak eta, familiaren izenean, Jurgi Madariagak parte hartuko dute ekitaldian. “Xabinen lana ezagutzea da haren balioa hobekien apeziazteko eta hura gogoratzeko modurik onena”, dio Galvanok; beraz, oñatiar guztiak gonbidatzen ditu liburuaren aurkezpenera. Aurrerago, hiriburuetan –Donostian, Bilbon eta Gasteizen– ere egingo dituzte aurkezpenak.

# 'Oñatiko Euskara Zaharra'

## liburua plazaratu du Ander Lizarralde

Auzorik-auzo, adineko pertsoneri egindako elkarrizketak oinarri, Oñatiko euskara zaharra eta berriaren artean gertatu diren aldaketa nagusien deskribapena eta interpretazioa egin du Lizarralde.



Ander eta Rosarito Lizarralde ama-  
semeak ageri dira  
liburuaren azalean.  
Oñatiko Euskara  
Zaharra eta Berria  
irudikatu nahi izan  
ditu horrela egileak.

### Zer aurkituko du irakurleak *Oñatiko Euskara Zaharra - Apunteak 1* liburuan?

Lehenengo eta behin esan nahi nuke, liburutik baino txostenetik hurrago ikusten dudala lan hau. Horregatik, edizio oso mugatua atera dugu -80 bat ale-, baina udalaren webguneko (oñati.eus) 'Argitalpenak' atalean dago irakurri edo dohainik deskargatzeko moduan. Nire asmoa da halako 6-7 liburuki ateratzea hurrengo hiru-lau urteetan, eta, ondoren, jasotzen ditudan ekarpen, ohar, zuzenketa eta informazio berriarekin zerbait definitiboagoa argitaratzea.

Liburu honetan, eta ondoren etorriko diren Oñatiko euskara zaharraren inguruan jasota ditudan hainbat eta hainbat ohar azaltzen ditut, eta horiekin batera gogoeta eta interpretazio batzuk. Nire hasierako asmoa Oñatiko Euskara Zaharraren hiztegia osatzea zen, eta material asko daukat jasota, baina gero pentsatu nuen ea merezi ote zuen material hori guztiori liburukote batean azaltzea, apalategian geratzeko. Lehenago ere egin izan dira herriko euskara jasotzeko hainbat lan, baina iruditzen zait lan gutxiago egin dela jasotakoa interpretatzen. Eta horixe da nire asmoa, alegia, jasota dagoena aztertzea, zenbait baieztapen zalantzan jartzea, beste batzuk trinkotzea...

Erraz irakurtzeko moduan idatzi eta egituratu dut liburua, baina, batez ere, euskara-irakasle, filologo eta hizkuntzalariei zuzenduta dago, eta gus-tatuko litzaidake ohar, zuzenketa edo ekarpenak jasotzea. Esan

Oñatiko euskara zaharraren hiztegia osatzea zen Ander Lizarralderen hasierako asmoa, eta helburu horrekin jardun du hainbat urtez, auzorik-auzo, adinean aurrera doazen herritarren hizkerak jasotzen. *Ahotsak* proiektuarrako eginda zeuden elkarrizketak eta Gure Bazterrak elkarteak *Erreusak* proiekturako egindakoak ere baliatu ditu. Baina jasoketa lanera mugatu barik, -lehendik ere badira helburu horrekin egindako lanak-, urrats bat harago joan nahi izan du Lizarralde, esku artean daukan material hori guzti hori interpretatuz eta ondorioak atereaz, lehendik jasota dagoena aztertu, zorroztu eta, zenbait kasutan, zalantzan jartzeko edota berresteko. Datozen hiru-lau urteetan halako sei-zazpi liburuki ateratzeko asmoa du, Oñatiko euskara zaharraren inguruan jasota dituen ohar guztiak azalduz, eta gustura jasoko lituzke horien inguruko edozein ekarpen, zuzenketa edo ohar. Hauxe horretarako helbidea: [jardunaldiak@hotmail.com](mailto:jardunaldiak@hotmail.com).



**Altuna  
estankoa  
eskura daiteke  
'Oñatiko  
Euskara  
Zaharra'  
(Apunteak 1)  
liburua**

nahi nuke, baita ere, ikasketa unibertsitarioak –Euskal Filologia– ditudan arren, lan hau ez dela guztiz akademikoa, modu askean egindakoa baizik.

### Oñatiko Euskara Zaharra diotuzenean, zertaz ari zara?

Oñatiko Euskara Zaharra intuizio batetik irteten da, eta zera da: hizkuntzak beti aldatuz doazela kontutan izan arren, irudipena daukat 1960ko hamarkada baino lehen jaiotako oñatiarrek osatzen duten komunitateko herritarrek oso euskara desberdina darabil-tela. Ezaugarri asko amankomunean badituzte ere, ez da eman belaualdi batetik bestera egon ohi den ohiko aldaketa; badaude zirkunstantzia batzuk aldaketa edo transmisio hori berezia izatea eragin dutenak. Hori zen nire abiapuntua, eta hori azaltzen saiatzen naiz liburu honetan eta gero etorriko direnetan.

Eta zein zen komunitate hori? Bada, ezaugarri zehatz batzuk ditu: 1960a baino lehen jai-

takoak; euskara ahozko transmisio bidez jaso zuten –telebistarik gabe, irratarik gabe...–; ez ziren eskolara joan 6-7 urte bete arte; eskola erdaraz jaso zuten; eta ez zuten Euskara Baturik ikasi. Horien euskara da Oñatiko Euskara Zaharra.

### Liburuko lehen atalean Araozko euskara aztertzen duzu. Bertara jo duzu Oñatiko euskara zaharraren zuztarren bila?

Ez, bereziki. Herriko edozein auzotan daude Oñatiko euskara zaharraren zuztarrak. Kontua da, Araotzen jasoketa lan handia eginda dagoela, bai *Ahotsak* proiekturako, eta bai neronek egindako elkarrizketa ugari ere, Oñatiko euskara zaharraren lanketarako. Araozko euskara Oñatikoaren aldaera bat da, bere ezaugarri bereziak dituena, eta leinztarren eragina ere baduena. Tamalez, aldaera hori azken-azkenetan dago; ezaugarri solte batzuek iraungo dute urte batzuetan, baina Araozko

**Lehenago ere egin izan dira herriko euskara jasotzeko hainbat lan interesgarri, baina iruditzen zait lan gutxiago egin dela jasotakoa interpretatzen. Eta horixe da nire asmoa, alegia, jasota dagoena aztertzea, zenbait baieztapen zalantzan jartzea, beste batzuk trinkotzea...**



aldaera erabiltzen duten hiztun apurrak adinean oso aurrera doaz. Beraz, oraintxe da momentua kontsultak egiteko, baina lehentasunak ondo finkatuta.

**Oñatiko Euskara Berria, hortaz, 1960tik aurrera egiten dena da, zure tesiaren arabera.** Bai, labur esateko, Euskara Baturaren eragina jaso dugunon euskara. Kanean entzundako hainbat adibide daude liburuan. Desberdintasun nabarmenak daude morfologian, joskeran, lexikoan...

Lexikoa aipatuta, gogoeta bat plazaratu nahi nuke. Oñatiko euskara zaharreko hitz asko eta asko desagertu dira, eta beste asko desagertzeaz dira. Horrek ez du esan nahi hitz horiek ondo erregistratuta ez daudenik, baina nire galdera da: zertarako da ondare hori? Beldurtu egin behar al ditugu gazteak ezagutzen ez duten hitz zaparrada batekin?

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.



**"DUAL-ari esker enpresan lanean hasteko prest sentitzen naiz"**

**Oier Zabaleta Rabanete**  
Mekatronika Industrialia  
Goi Mailako Heziketa Zikloa

Oier Zabaleta Rabanete, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MGEP) ikaslearen testigantza dakarkizuegu. Oier Mekatronika Industrialeko goi mailako zikloko bigarren urteko ikasketak burutzen ari da DUAL intentsioa programaren barruan.

**Zergatik aukeratu zenuen Mekatronika Industrialeko ikasketak egitea?**  
Mikroinformatikako erdi mailako ziklo bat burutu ostean, Automatizazioa eta Robotika Industrialeko goi mailako ziklo bate egitea erabaki nuen. Aukera hau, informatika ardatz zeukaten goi mailako zikloak baino erakargarriagoa egin zitzaidan, praktikoa zelako eta bertan programazioa eta logika lantzen zirelako, eta hori gustuko nuen. Ziklo hori amaitu ostean erabaki nuen ikasketekin jarraitzea ematea eta bigarren goi mailako ziklo bat egitea. Kasu honetan Mekatronika Industrialia, Robotikarekin lotura handia zuelako eta ziklo horren konplementu on bat izan zitekeelako.

**Nolakoa izan da bi ziklo hauen inguruan MGEP-en izandako esperientzia?**  
Oso ona. Ikasketak nahiko erraz burutu ditut ez dut arazorik izan ikasgaiak aurrera ateratzeko garaian. Batik bat alderdi praktikoa nabarmendu nahiko

nuke, praktika eta erronka ugari egin ditugulako, kasu errealean inguruan, eta horrek ikasketa prozesua asko aberasten dit.

MGEP eta inguruko enpresen arteko erlazioa ere nabarmendu nahiko nuke. Erronka batzuk enpresa mundura bideratuta baitaude, eta enpresek in elkarlanean egiten dira, enpresan bertan. Adibidez ULMA Packaging enpresarekin erroak bat egin genuen eta ondoren ikasle batzuk bertan DUAL intentsioa egiteko aukera izan genuen.

**MGEP-ek enpresekin duen hurbiltasun horrek lagundu al dizu?**

Bai, enpresekin kontaktua izateak asko lagundu dit. Ez erronketan bakarrik, baita DUAL intentsioa egiteko garaian ere. Ikasketen zati bat enpresa barruan egiteko aukera izateak enpresa barrutik ezagutu eta nire buruan konfiantza irabazten lagundu dit. Hasieran errespetua nien enpresei, ez nekien nola funtzionatzen zuten, zer lan egin beharko nituen eta lan horiek aurrera ateratzeko gai izango ote nintzen edo ez. DUAL intentsioari esker, ULMA Packaging enpresan lan egiteko aukera izan dut, eta enpresa barrutik ezagutzeko. Lanak arazo gabe aurrera ateratzeko gai naizela ikusi dut. Nire burua edozein enpresetan lan egiten hasteko prest ikusten dut momentu honetan.

**Ze plan dituzu etorkizunerako?**

DUAL ak enpresa batean praktikak egiteko aukera eman dit eta lan mundurako sarrera erraztu dit. Oso gustura nago ULMA Packaging-en lanean, etxetik gertu gainera. Lan giroa oso ona da eta enpresari nire talentua eskaintzeko aukera daukadala ikusten dut. Etorkizunean bertan lan egitea gustatuko litzaidake.

## ATE IREKIAK

**Maiatzak 9**  
11:00etan  
**Eman izena!**

MGEP: 664 298 683



Uste dut merezi duela horren inguruko hausnarketa egitea. Nik neure iritzia ematen dut, baina bestelakoak ere egon daitezkeela jakitun, noski.

### Oñatiko euskara zaharra eta berria bereizteko adinakoa al da bien arteko aldea?

Subjektiboa izan daiteke, baina nik uste dut baieztatu daitekeela deskribapen bidez, eten nabarmena dagoela bien artean, ahozko kulturari bizi zen jendarteak zerabilen euskara eta idatzizko kulturari bizi garenok darabilgunaren artean.



### Sarri entzuten dugu gaurko gazteek darabilten euskara zabarra dela. Ildo horretan, 'euskararen polizia' lanetan aritzen direnak kritikatzeko dituzu liburuen.

Bai, badakit hitz polemikoa izan daitekeela, baina etengabe "hori ez da hola esaten; hori gaizki dau..." zuzentzen ibiltzen direnez ari naiz. Nire ustez, horrek zera adierazten du: ez dugula asu-mitu nahi hizkuntzan gertatzen ari den aldaketa, eta, orduan, egiten duguna da, aldatu duen jendeari sentiarazi bere euskara okerra edo txarra dela, eta uste dut ez gaudela horrela ibiltzeko moduan. Ezertxo ere ez zuzentzea ere ez dut ondo ikusten, baina horri ere buelta bat eman beharko geniokeela uste dut.

### Ezer gehitu nahi al duzu?

Esan nahi nuke liburu honen eta etorriko direnen helburua dela eztabaida sustatzea, eztabaida librea eta iritzi-trukea naturalizatzea. Kandido Izagirrek eta beste hainbatek lan bikainak egin zituzten, baina horrek ez du esan nahi dena ondo egin zutenik, eta guri dagokigu aurrekoen lanak aztertzea, horixe baita lan horiek balioan jartzeko modurik onena.

Ildo horretan, laster iritsiko da Manuel Umerezek XIX. mendean oñatieraz idatzitako bi liburuen edizio kritikoa, eta uste dut albiste oso ona izango dela gure herriarentzat, aditu batek egingadako azterketa eskura edukitzea.



## Araoztarren ekografia soziala

Araozko garai bateko bizi-ohiturak eta berbakera jaso ditu Ander Lizarraldek, auzotarren ahotik

2024an *Olabartarrak* liburua plazaratu zuen Ander Lizarraldek, eta orain, eskema bera jarraituz, *Araoztarrak I* eta *II* liburua argitaratu ditu hilabete gutxiren buruan. Auzotarrak dira liburuko benetako protagonistak, auzotarren testigantzak eta argazkiak, zein baino zein ederragoak. 1960ko hamarkadan, industrializazioa eta modernitatea iristearekin batera, gure arbasoen bizitzeko moldea galdu zen betirako, abiada bizian, ia memoria-rik utzi gabe, bizimodu zahar eta gogor hartaz inork gehiago ezer jakin nahiko ez balu bezala. Ez da apenas transmisiorik egin, eta hutsune hori betetzea da, neurri batean, liburu hauen helburua. Baserriz baserri ibilita, garai bateko bizipen ea oroitzapenak jaso ditu Lizarraldek auzotarren ahotik: ofizioak, janzkerak, eskola, festak, ezkontzak, hiletak, gerra... Gainera, auzotarren testigantzak beraiek esandako modu-moduan jaso ditu –hitzen forma osoak errespetatuz– eta horri esker, euskara bera eta berbakera nola aldatu diren ikusteko ere balio dute liburuok. Altuna estankotan eskura daiteke *Araoztarrak II* liburua –*Araoztarrak I* agortuta dago–, eta, bestela, udalaren webguneko ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)) 'Argitalpenak' atalean ere eskuragarri daude, irakurri edo deskargatzeko moduan. Hurrengo liburua –*Larraintarrak*– prestatzen hasita dago, jada, Lizarralde.



**LANGILE NEKAEZINA.** Langile nekazina eta oparoa dugu Ander Lizarralde. Bakarka zein talde-lanean, *Gure Bazterrak* Oñatiko kultur elkartearen babesean gehienetan, liburu, dokumental eta ikerketa lan bikainak plazaratu ditu azken hamar urteotan. Goian aipatutakoez gain honako hauek nabarmendu daitezke: *Txirrita, 40 urte* (2016), *Boluntario baten ibilerak* –Gregorio Garitaonandia 'Borda'ren militantzia urteak– (2017), *Oñatiko Ahuntzak - Los Cabra* dokumentala (2020), *Graziano eta beste* (2021), *Irunberri, 1990: Arrolaren negarra* (2023) eta *Iñaki bota daue*. *Gerra zikinaren hasiera* (2025). Orain Josu Zabala 'Basajaun' ETAKidearen heriotza ikertzen ari da Pako Aristirekin batera.



BIZIEDER

ALONIA AZPIAN OÑATI

Mendia txiki geratzeko lain, amestu!!

OÑATI  
SAN MARTIN

ETXEBIZITZA LIBREAK ITUNDUTAKO PREZIOAN

48 etxebizitza libre eraikiko ditugu prezio itunduan.

- **Zer esan nahi du honek?** Obra berriko etxebizitza bat prezio merkeagoan erosi ahal izango duzula.
- **Zer konpromiso hartzen duzu?** Etxebizitza hau ohiko bezala erabiltzea.
- **Nire egoera pertsonala aldatuz gero, 10 urte baino lehen sal dezaket?** Bai, baina Oñatiko Udalak itundutako prezioan erosteko eskubidea izango du.
- **Eta 10 urte igaro ondoren saltzen badut?** Orduan, etxebizitza libreki eskeini ahal izango duzu eta nahi duzunari merkatuko prezioan saldu ahal izango diozu inolako mugarik gabe.
- **Baldintza bereziren bat bete behar al dut?** Ez, bat ere ez. Familia bat bazarete, etxebizitza horietako baten jabe izateko lehentasuna izango duzue.\*

Interesa baduzu, deitu eta informatuko zaitugu.



Irudi birtual ez lotesleak



WWW.BIZIEDER.COM

SUSTATZEN DU:

KOMERTZIALIZAZIOA:



grupo eibar  
INMOBILIARIA

www.grupoeibar.com - 943 31 66 11  
comercial@grupoeibar.com

italde

GRUPO INMOBILIARIO ITALDE

Ramón Irizar, nº2 Bajo, Oñati

943 782 707

E.: info@italde.com

www.italde.com

\*Etxebizitzen salmenta zuzenean egingo zaie bi pertsona edo gehiagoko familia-unitateei. Banakako eskabideak itxaron-zerrendan erregistratuko dira hilabeteko epean, etxebizitzak eskuragarri daudela egiaztatu arte.

# Udalak eta OKKE elkarteak lankidetzara hitzarmena berri dute

- > OKKE (Oñatiko Kale Katu Elkarte) duela bi urte eratu zen, kaleko katuen ugalketa kontrolatzeko eta ongizatea bermatzeko asmoz
- > Bi urte hauetan 97 katu antzutu dituzte eta 84 adopzioan eman



Izaro Elorza alkatea, eta OKKE elkarteko Débora Outsen eta Irene Moreno hitzarmena sinatzen

Etxeko Animaliak babesteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 30eko legearen arabera, tokian tokiko udalen betebeharra da herriko katu-koloniak kudeatzea, HEMI metodoa (Harrapaketa, Esterilizazioa, Markaketa eta Itzulera) – gazteleraz CER (*Captura, Esterilización y Retorno*)– aplikatuz.

Lege horrek berak dio, era berean, udalek lankidetzara sustatu behar dutela animalien babeserako elkarteekin, eta testuinguru horretan, Oñatiko Udalak eta OKKE elkarteak (Oñatiko Kale Katu Elkarte) lankidetzara hitzarmena sinatu zuten 2023ko udazkenean, katuen kudeaketa etikorako programa abian jartzeko, hau da, katuen kontrolrik gabeko ugalketa

ekiditeko, eta herritarren eta katuen arteko bizikidetzara hobetzeko helburuarekin.

Orain, bi urte hauetako jardunaren balorazioa egin ostean, lankidetzara hitzarmena berritzea eta eguneratzea adostu dute alde bietan. Hitzarmen horren arabera, Udalak bere gain hartzen ditu OKKEren jardunak sortzen dituen gastuak: katuak antzutu, pentsua erosi, mikrotxipak ipini, katu-koloniak egokitu, herritarrak sentsibilizatu... Gainera, Udalak aldi baterako zaintza-gune bat lagako dio OKKEri, adinagatik esterilizatu ezin diren edo tratamendu medikua behar duten katu gaixoak zaintzeko.

## UDALAREN BABESA

Udalak positiboki baloratu du joandako bi urte hauetan



**Udalaren legezko betebeharra da kaleko katuen koloniak kudeatzea, eta, ildo horretan, OKKE elkarteko boluntarioak Udalarekin batera ari dira lanean**

**IZARO ELORZA ARREGI**  
Alkatea

OKKE elkartearekin egindako elkarlana. "Datuak nahiko adierazgarriak dira", adierazi du Elorza alkatea; "bi urte hauetan 97 katu antzutu ditugu eta beste 84 atera ditugu kaletik, adopzioan emanda.

Nik uste dut duela bi urte baino hobeto gaudela, eta azpimarratu egin nahi nuke OKKE elkarteko boluntarioak lan handia egiten ari direla".

Ildo horretan, alkateak argi utzi nahi du OKKEko boluntarioak ez dabilzala bere kasa lanean, udalarekin elkarlanean baizik. "Udalaren legezko betebeharrak bat da kaleko katuen koloniak kontrolatzea, eta lege horrek berak ezartzen du nola egin behar den kontrol etiko hori –CER metodoa aplikatuz–, nork eta zein baldintzatan eman diezaiekeen jaten, eta beste hainbat betebeharrak. Beraz, adierazi nahi nuke, OKKEko boluntarioak Udalarekin lankidetzara ari direla, kontrol baten barruan, beti ere".

Orain arteko jardunaren balorazio positiboa eginda, hobetzen jarraitzeko konpromisoa adierazi du alkateak. "Bi urte hauetan denok ari gara ikasten, katuen koloniak jartzen, ahalik eta kokapen egokienak bilatzen, inguruko bizilagunekiko bizikidetzara bultzatzen... Baina ikusten ari gara metodo egokia dela kaleko katuak kontrolatzeko".

"Animalia kopurua guztiz kontrolatzea eta mugatzea ez da egun batetik bestera lortzen den gauza bat, eta, ildo horretan, udalaren betebeharrak bat bada ere, uste dut guztion elkarlanari esker baino ezingo dugula geure, eta gure herriko animalien ongizatea bermatu", gaineratu du alkateak.

# OKKE elkarteak

## Zein lan egiten du eta nola?



Oñatiko Kale Katu Elkarteak (OKKE), kaleko katuen ongizatearekin konprometituta dagoen irabazi asmorik gabeko elkarteak da. 2023ko udaberrian eratu zen ofizialki eta hainbat herritar boluntariok osatzen dute elkarteak.

### ELKARTEAREN HELBURUA

Kaleko katuek bizitza duina, osasuntsua eta segurua izan dezaten bermatzea. Helburu horrekin, populazioa kontrolatzeko lan egiten du OKKEk, antzute edo esterilizazio programa arduratsuen bidez, katuei oinarrizko arreta emanez eta herritarren artean kontzientzia sortuz.

### UDALAREKIN ELKARLANEAN

Animalien babeserako EAEko 9/22 Legearen arabera, Udalei dagokie tokian tokiko katuek kudeatzea; beraz, OKKE elkarteak lagundu egiten dio Udalari legea betetzen. Horretarako, 2023ko udazkenean lankidetzak hitzarmena adostu zuten Udalak eta OKKEk, eta orain berriro egin dute. Hitzarmen horren arabera, 2026an Udalak dirulaguntza bat ematen dio elkarteari, katu kolonien kudeaketak eragiten dituen gastuei aurre egiteko: katuen esterilizazioa, mikrotxipak jartzea, zaurituta edo gaixo dauden katuentzako tratamendua, pentsua erostea....

### KALEKO KATUEN KONTROLA: NOLA EGITEN DA?

HEMI metodoa (Harrapatu, Esterilizatu, Markatu eta Itzuli) –Gazteleraz CER (*Captura, Esterilización y Retorno*)– aplikatuz egiten da kaleko katuen kudeaketa etikoa, Animalien Babeserako 9/22 Legeak dioena jarraituz.

1. **Harrapatu:** Lehenengo, kalean bizi diren katuen kolonien mapa egiten da. Koloniak identifikatu ostean, katuek harrapatu egiten dira, modu segurua eta errespetuzkoak baliatuz.
2. **Antzutu / Esterilizatu:** Katuek herriko albaiari-klinetara eraman eta esterilizatu egiten dituzte herriko albaiari zerbitzuetan, populazioaren kontrolik gabeko hazkundea saihesteko. Lanean daramaten bi urte eta erdiko tarte honetan 97 katu esterilizatu dituzte.
3. **Markatu:** Antzutatako katuek identifikatu egiten dira belarrien egiten zaien marka baten bidez, esterilizatuta daudela jakiteko.
4. **Itzuli:** Antzutu ostean katuek jatorrizko lekura bueltatzen dituzte, egoera onean daudela ziurtatuz.

Programa honek katuen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, gainpopulazioak eragindako arazoak saihesten ditu (borrokak, gaixotasunak, komunitateko eragozpenak...). Bi urteren buruan 97 katu esterilizatu ditu OKKEk.

### KATUAK ELIKATU

Identifikatutako katu kolonia bakoitzeko janleku bat ipintzen dute OKKEko boluntarioek, Udalarekin adostutako lekuetan. Katuek elikagai garbi eta nutritiboak edukitzea bermatzen dute, eta ingurua garbi mantentzeaz arduratzen dira. Janari lehorra eta pentsua baino ez zaie ematen.

Gaur egun, 11 kolonia kudeatzen dituzte Oñatiko herrigunean. Janleku bakoitzean kartel bat ipintzen dute, kontrolatutako katu kolonia bat dagoela adieraziz. Katuei jaten emateaz arduratzen diren OKKEko boluntarioek Udalaren baimena dute katuei jaten emateko. Baimenduetako elikadura puntuetatik kanpora debekatuta dago katuei jaten ematea.

(Hurrengo orrira)



» Kaleko katuek harrapatu eta albaiariarengana eramaten dituzte OKKEko kideek. Bertan esterilizatu eta markatu ostean, jatorrizko lekuetara bueltatzen dituzte. Bi urtetan 97 katu antzutu dituzte.



» Oñatiko herrigunean 11 katu kolonia kudeatzen ditu gaur egun OKKE elkarteak. Kolonia bakoitzean katuentzako janleku bat ipintzen dute eta beraiek arduratzen dira jaten emateaz eta ingurua txukun mantentzeaz.



## ADOPZIO PROGRAMA

Sozializatzeko moduan dauden katuak 'Adopzio arduratsua'ren programan sartzen dituzte, kaletik atera eta maitasunez betetako etxea eskainiko dieten familiak bilatuz. Adopzioak lege barruan egiten dira. Bakoitzak bere kontratua dauka eta hartzaileen datuak erregistro batean jasota geratzen dira. Katuak 6 hilabete baino gehiago baditu, esterilizatuta ematen dute, eta, bestela, jabeak hartzen du, katua adin horretara iristen denean, esterilizatzeko konpromisoa. Udalak aldi baterako zaintza-gune bat uzten du OKKEren esku, adinagatik esterilizatu ezin diren edota tratamendu medikua behar duten katuak zaintzeko.

## UDALTZAINGOAREKIN ELKARLANEAN

Katuren bat zaurituta, galduta edo ibilgailuren batek harrapatuta ikusten badugu, udaltzaingora deitu behar dugu: 943081000 (092 doako telefonoa, Oñatitik deituz gero). Udaltzainak jarriko dira harremanetan OKKEekin.

## OKKEren BALORAZIOA

OKKEko kideek positiboki baloratzen dute bi urte hauetan egindako lana. Datuak hortxe daude: 97 katu esterilizatuta, eta 84 adopzioan emanda. Kontuan hartuta katu bakoitzak bi edo hiru umealdi izaten dituela urtean, kopuru inportanteak dira katuen kontrolik gabeko ugalketa ekiditeko.

Hau ez da egun batetik bestera lortzen. Bere denbora behar duen lana da, baina OKKEko kideen ustez orain dela bi urte baino hobeto gaude: katu gutxiago dago kalean, garbiago daude, ez da ikusten gaixotutako katurik... Poliki poliki, herritarrak ere badoaz horretaz konturatzen, baina oraindik ba omen daude OKKEren lana begi txarrez ikusten duten herritar batzuk, eta katuentzako jan-lekuak hondatu izan dizkiete behin baino gehiagotan. Bada, herritar horiek jakin behar dute OKKEko boluntarioak ez direla bere kabuz ari lan hori egiten, Udalarekin lankidetzan baizik, legez udalarena den arduraren bat betetzen laguntzen.

## BOLUNTARIO BILA

Lan boluntario gehienetan gertatu ohi den moduan, OKKE elkartearen ere laguntza beharrean daude. Katuei jaten ematea, katuen koloniak txukun mantentzea, esterilizazio prozesuak, adopzioen tramitazioa... Bere denbora eskatzen duten lanak dira, batez ere pertsona gutxi batzuen esku geratzen badira. Kontuan hartu, lehen esan dugun moduan, Oñatiko herrigunean 11 katu-kolonia kudeatzen dituela gaur egun OKKEk. Beraz, zeregin horietakoren batean laguntzeko prest dauden herritarrak animatu nahi dituzte OKKEko kideekin harremanetan jartzera.

## ESKER ONEZ

OKKEko kideek eskerrak eman nahi dizkiete modu batera edo bestera katuen ongizatea bermatzeko eta pertsonen eta katuen arteko bizikidetzaren hobetzeko lanean diharduten pertsona guztiei, bereziki herriko bi albaitari-klinikei, elkarlanean aritzeko erakutsi duten prestutasunagatik, askotan, lan orduetatik kanpora eta modu altruistan aritzeko prest egoten direlako.



OKKE elkarteko zenbait kide eta laguntzaile



» Sozializatzeko moduan dauden katuak adopzioan ematen saiatzen da OKKE elkarteak. Adopzio arduratsuek izaten dira eta bakoitzak bere kontratua dauka. Bi urtetan 84 katu eman dituzte adopzioan.



<https://sites.google.com/view/okkeonati/webgunean>, elkarteari buruzko informazio guztia ikus daiteke: zer den OKKE, zein helburu dituen, nola egiten duen lan, nola egiten diren adopzioak, elkarteari laguntzeko aukera edo bideak...



◀ Ondoko QRak eramango zaitu OKKE elkartearen webgunera

**Instagram eta Facebook-eko kontuetan ere (@okkeonati) jartzen dituzte adoptatzeko zain dauden katuen argazkiak eta elkartearen jardunarekin lotutako bestelako albiste eta deialdiak.**


## 220 neraberen gurasoak konprometitu dira smartphonea DBH2 amaitu arte ez ematera




Oñatiko 'Altxa Burua' taldeak herriko ikastetxeetan egindako azken inkestak erakusten duenez, gero eta gehiago dira seme-alabei smartphonea emateko adina atzeratzearen alde agertzen diren gurasoak. Iazko abenduan egin zuten galdeketa 287 gazteren gurasoek parte hartu zuten. Hona hemen ondorio nagusietako batzuk:

### GURE IKUSPUNTUA

'Smartphoneak eta zure seme/alabak'  
Kezkatzen zaituen gai bat da?



Zenbat urtetik aurrera uste duzu egokia dela zure seme-alabak bere smartphone propioa edukitzea?



### GURE KONPROMEZUA



**200 nerabeen gurasoak:**  
"Smartphone-a DBH2 amaitu arte ez ematera konprometitzen dira"

## Pertsona Nagusien Mahaiak ikastaroak antolatu ditu KZGunearekin elkarlanean

**Teknologia berriak adinekoen eskura jartzea eta arrakala digitala murriztea da helburua**

Teknologia berriak adinekoen eskura jarri eta arrakala digitala murrizteko helburuarekin, Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaiak hainbat ikastaro antolatu ditu KZGunearekin elkarlanean. Maiatzean (goizeko ordutegian) eta ekainean (arratsaldean) izango dira ikastaroak. Batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz (ikus ondoko taula).

Izen-ematea herriko adinekoen elkarteetan (PAKE LEKU eta LAGUN LEKU) egin ahal izango da **apirilaren 27ra arte**. Ikastaroren batean izena ematen duten pertsonak alta eman beharko dute KZGunean, formakuntza hasi aurretik. Horretarako bi bide daude: KZGunearen web orrian (informazio zehatza: <https://www.youtube.com/watch?v=ekwnOVeiPjE>), edo, bestela, aurrez aurre KZGuneko bulegoan bertan, kultur etxeko goiko solairuan.

### IKASTAROAK

► **MAIATZAK 4 - 12** (09:00-11:00 / Gaztelera)z

'Smartphoneak eta tabletak.

Zure Android gailua erabiltzen ikasi'

► **MAIATZAK 18** (09:00-11:00 / Euskaraz)

'BakQ ziurtagiria'

► **MAIATZAK 19-20** (09:00-11:00 / Euskaraz)

'Online izapideak Osakidetzarekin'

► **MAIATZAK 21-22** (09:00-11:00 / Gaztelera)z

'Erosketa eta ordainketa seguruak Interneten'

► **MAIATZAK 25-28** (09:00-11:00 / Gaztelera)z

'Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean'

► **EKAINAK 1 - 4** (16:00-18:00 / Euskaraz)

'Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen'

► **EKAINAK 5 - 9** (16:00-18:00 / Euskaraz)

'Adimen artifiziala. Chat GPT eta haren alternatibak'

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

JUANJE MARGOAK  
627 818 247



Izaro Elorza  
alkateak eta Iñigo  
Ruiz Hirigintza  
batzordeko  
buruak azaldu  
zuten plana,  
Gislan eta Hiritik  
At aholkularitzen  
laguntzarekin

## Etxebizitza plana aurkeztu du Udalak

Urteetako lanketaren ostean, Etxebizitza planaren jendaurreko aurkezpena egin zuen udal gobernu taldeak martxoaren 10ean, *Gislan* eta *Hiritik At* aholkularitzen laguntzarekin –eurek izan dute diagnostikoa eta Ekintza Plana lantzeko ardura–. Zehazki, Oñati gune tentsionatu izendatzeko tramiteak hasi berritan antolatu zen hitzaldia, herritarrek jakin dezaten zein den herriaren egoera eta zein diren epe motzean landu litezkeen ekintzak, eta, bide batez, zalantzak argitzeko aukera emateko.

Herriaren egoera ezagutzeko diagnostikoa egin duen Gislan aholkularitzako ordezkariak azaldu zuen askotariko datuak aztertu dituztela –biztanleriaren bilakaera, bizikidetzaren unitateen ugartzea, etxebizitza parkearen hazkundea...–, eta azpimarra jarri zuen demografiaren bilakaeran. "Orain arteko joerak bere horretan jarraituko balu, datozen urteetan herriak ez luke aparteko biztanleria igoerarik izango; 2040an, adibidez, soilik 190 biztanle gehiago leudeke. "Beraz, ez da etxe gehiago eraikitzeko aparteko premiarik ikusten", azaldu zuen *Gislan*-eko zuzendariak.

Bestalde, argitu zuen Etxebide-n erregistratutako oñatiarren eskaeren –219 guztira– %83,1 alokairuari loturikoak direla. "Garrantzitsua da, beraz, alokairuari begirako ekintzak bultzatzea. Ildo horretan, gaineratu zuen, azken urteotan gora egin duela alokatutako etxebizitza kopuruak Oñatin, %5,7tik (2011) %9,1era (2023).

Hurrengo hiru urteetarako Ekintza Planaren ardatz nagusiak azaldu zituen *Hiritik At* aholkularitzako ordezkariak, garbi utziz etxebizitzaren arazoa ezingo dela egun batetik bestera konpondu, "gaurko egoera azken 50 urteetan bultzaturiko politika okerren ondorioa baita". Oro har, hiru lehentasun ditu Ekintza Planak: etxebizitza hutsak mobilizatzea, etxe handien edo baserrien segregazioa ahalbidetzen dituzten ordenantzak eguneratzea, etxeen birgaitzerako erraztasunak eskaintzea, eta etxe bila ari direnentzako laguntzak areagotzea".

Udalaren izenean Izaro Elorza alkateak adierazi zuen etxebizitzaren gaia lehentasuna dela udal gobernuarentzat. "Etxebizitza eskumena zuzenean udalona ez bada ere, prest gaude ditugun mugetatik eta elkarlanetik, auziari irtenbidea emateko lanean jarraitzeko, Oñatiko errealitatera egokituriko irtenbide eraginkor eta integralak eskainiz". Iñigo Ruiz, udaleko Hirigintza batzordeko buruak adierazi zuen etxebizitzaren auziak politiken norabidea aldatzea eskatzen duela. Era berean, gaineratu zuen, hasita daudela Ekintza Planak barnebiltzen dituen zenbait ekintza egikaritzen, eta aurreratu zuen alokairua sustatzeko etxejabeentzat lagungarri diren programen (ASAP, Bizigune...) berri emateko saio informatiboak egingo direla datozen hilabeteetan.

## Berehalako irtenbideak proposatu ditu EAJk, "ez soilik planak"

EH Bilduren udal gobernuaren ekintza falta salatu du EAJk Oñatin gehien kezkatzen duen azaro larrietako baten aurrean: etxebizitza falta. "Udal gobernuak ez da lanean hasi, ez aurrekontuetan, ez fiskalitatearen bidez, eta ez da benetako konponbideak planteatzen ari, etxebizitza eskaera gero eta handiagoari irtenbidea emateko. Planak eta plan gehiago, besterik ez".

Ildo horretan, EAJk proposatu du hobari fiskalak aplikatzea etxebizitzaren alokairua sustatzeko. Zehazki, OHZ/IBI zergan %50eko hobaria proposatzen du alokairura bideratzen diren etxebizitzendako, eta, bestalde, Eraikuntza eta Obren gaineko zerga doitzeari, alokairura bideratutako etxebizitzaren erreformak errazteko.

Etxebizitza berrien eraikuntzari dagokionez, Kurtiderixakoa (Otaui Zuhaitzian) bezalako lursailak erosteko aukera planteatu du –60 etxebizitza eraikitzeko aukera dago bertan–. Ildo horretan, Italde sustatzailearekin batera etxebizitzaren eraikuntza gidatzea eta bultzatzea proposatzen du EAJk.

## BASTERRTXEAREN MONUMENTUA ETA SAN MARTINGO ERMITA

EAJren udal taldeak gogor kritikatu du Urrintxon dagoen euskal artzainaren omenezko eskulturaren eta pintadaz josita dagoen San Martingo ermitaren mantenu falta. "Duela urtebete baino gehiago eskatu genuen eskultura txukuntzea, baina oraindik ez da ezer egin. Mantentze lanak behingoz egitea eskatzen diogu udal gobernuari".

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

# Elortza jeneralaren iturria berritu egingo du Udalak

Asturiasko industria siderurgikoa garatzeagatik nabarmendu zen Araotzen jaioetako militarra

Foruen plaza aldameneko berdeguneak berritzearekin batera, bertan dagoen Elortza jeneralaren iturria ere eraberritzea erabaki du Udalak. Halako lanetan aditua den *Petra* koop. elkarteari esleitu dizkio lanak 13.632 eurotan (BEZ kanpo). Plazako iturri eder hau Casto de Zavala arkitektoak diseinatu zuen 1880an, oñatiar militar ospetsua hil eta zazpi urtera, eta gure herriko ondarearen parte da, XIX gizaldi amaieran Oñatin eraiki ziren beste zenbait iturriekin batera.

## ELORTZA JENERALA

Sortzez araoztarra zen Elortza jenerala. Hamaika urte besterik ez zituela Artilleria Eskolan sartu zen eta handik hiru urtera, 1798an, Armadako tenienteorde izendatu zuten. 1820ko mugimendu liberalean parte hartu zuen eta, ondorioz, 1823an erbestera jo behar izan zuen. Europan zehar bidaiatu eta Belgika, Alemania, Piamonte eta Britania Handiko industriaguneetan siderurgia eta metalurgiari buruzko ezagutzak osatu, eta Liejako unibertsitatean ingeniari eta meatze ikasketak egiteko baliatu zuen etapa hura, harik eta Fernando VII.ak Espainiara itzultzeko aukera eman zion arte. Marbellako burdinola zuzentzera bidali zuten eta, ondoren, 1832an, Sevillako meatzeak gidatzeko ardura eman zioten.



Fco. Antonio Elorza Agirre  
(Oñati, 1798 - Madril, 1873)

Bere ezagutzei esker, Trubiako (Asturias) arma fabrikako zuzendaria izan zen 1845etik 1867ra. Lantegiaren garairik oparo eta emankorra izan zen. Fabrika modernizatzeaz gain, Lanbide Heziketako Eskola ere sortu zuen 1850ean, profesional harrobi bikaina sortuz. Fabrikan lana egitera iristen ziren langileentzako auzo jendetsu baten sorrera bultzatzen ere aitzindaria izan zen. Oviedoko Su-arma Eramangarrien Fabrika modernizatzeako ardura ere izan zuen 1855-1859 artean. Izen eta eragin handiko gizona izatera iritsi zen eta, hala, metalurgiako enpresa pribatuaren esparruan ere jardun zuen. Baina, duda barik, Trubiako fabrika izan zen bere obra nagusia. Esan daiteke Trubiaren urrezko aroaren eta Espainiako siderurgiaren suspertzearen arduradun nagusietako bat izan zela.

Trubia utzi ostean, koronel izendatu zuten 1874an, eta Gerraren Kontseilu Goreneko kide ere izan zen. Bere ibilbide profesionalean artilleriako armen alderdi industrial eta teknikoarekin lotutako hainbat batzorde zientifikotan parte hartu zuen, ez bakarrik Espainian, baita Europan ere, hainbat domina eta kondekorazio jasoz Belgikan, Portugalen, Frantzia, Italian eta Prusian, besteak beste. Oviedoko Udalak kale bat eskaini zion eta Trubiako arma fabrikako lorategian haren omenezko monumentua eraiki zuten. Segoviako Artilleriako museoan ere Elortzari eskainitako espazio garrantzitsu bat dago. •



Goian, Elortza jeneralaren iturria. Beheran, Elorzaren omenez, Trubiako (Oviedo) arma-fabrikako lorategiko monumentua



## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

# Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza deialdia

> 1.500 eta 3.000 euro arteko dirulaguntza jasoko dute sustatzaileek. Emakumeak badira, %30 gehiago.

> Ez da derrigorrezkoa Oñatin erroldatuta egotea, baina bai, jarduera Oñatin alta emanda egotea.

Enpresa jarduera berri bat sustatu edo eskualdaketa bidez jarduerari jarraipena ematen dioten pertsona fisiko edo juridikoei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak.

## BALDINTZAK

- Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan Oñatin alta emanda egotea.
- Sustatzaileak Gizarte Segurantzari alta emanda egotea.
- Enpresak 10 langile baino gutxiago edukitzea.
- 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean alta emandako jarduera izatea.

## DIRULAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOAK

a) Jarduera-hasierarako eta sustatzaileen autoenplegurako dirulaguntza:

- Alta ematen duen sustatzaile bakoitzeko **1.500€**.
- Lehen sektoreko jarduerak: alta ematen den sustatzaileko **3.000€**.
- Sustatzailea emakumea denean, %30 gehiago.
- Dirulaguntza muga onuradun bakoitzeko **6.000€**.

b) Merkataritza sektoreko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza:

- Lehenengo urteko alokairu gastuak: **2.500€**, gehienez.

Baldintzak:

- Merkataritza jarduerari lotutako zerbitzua izatea.
- Ostalaritzako jarduerak kanpo geratzen dira.
- Negozio lokala Oñatiko hirigunean kokatuta egotea.
- Alokairu kontratua eta jardueraren titularitatea sustatzaile berriaren izenean egotea.
- Negozio lokala pribatua izatea, eta jabearen eta sustatzailearen arteko harremanik ez egotea.

## DIRULAGUNTZEN ESKAERAK

- Eskaerak aurkezteko epea: 2026ko azaroak 30. Aurrez aurre, udaletxeko HAZ bulegoan, edo erregistro elektronikoaren bidez ([www.onati.eus](http://www.onati.eus)).
- Informazio gehiago: Udaleko Enplegu departamentuan (943 003 198 / [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus)).

## Langabetuak kontratatzeke dirulaguntza deialdia

Pertsona langabetuak kontratatzen dituzten herriko enpresa txiki eta ertainei (50 langile baino gutxiago) zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratatu den pertsona Oñatin erroldatuta eta langabezian egon behar da, eta ezin du ahaidetasunik izan enpresaren jabeekin edo zuzendaritzarekin.

Kontratuei dagokienez, mugagabeak edo, gutxienez, 6 hilabeteko iraupena duten aldi batekoak izan behar dute, eta lanjarduna %50ekoa, gutxienez. Gainera, enplegu sorrera garbia ekarri behar dute. Iazko uztailearen 1a eta 2026ko ekainaren 30a bitartean hasitako kontratuak jaso ahal izango dute laguntza.

## DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

- Kontratu mugagabea, jardun osoa: **1.500€**
  - Aldi baterako kontratua, 6 hilabeteko iraupena, jardun osoan: **1.200€**.
  - **300€**-ko gehikuntza, kontratatutako pertsona emakumea bada.
  - **%30**eko gehikuntza, kontratatutako pertsonak DSBEn jasotzailea bada, 35 urte baino gutxiago edo 55 baino gehiago baditu, edo epe luzeko langabea bada.
  - Enpresako eta deialdiko muga: **3.500€**.
- Laguntzak eskatzeko epea: 2026ko azaroak 30.  
Informazioa: [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus) / 943 003 198.

## Gizarteratze edo laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke

Gizarteratze edo laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzen dituzten enpresei zuzendutako laguntza deialdia egin du Udalak. Kontratu mugagabeak edo gutxienez 2 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak izan behar dute (%50eko jarduna, gutxienez). Laguntzak 1.500 eta 3.000 euro artekoak dira, lanaldi osokoak badira, eta %30 gehiago, emakumea edo 55 urtetik gorakoa bada. ([enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus) / 943 003 198).



Baserriak \* Teilatua \* Fatxadak \* Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati \* tel: 677 31 20 57  
[amaia@aiarkitektura.com](mailto:amaia@aiarkitektura.com)



# bô.Ayama Garapen pertsonal eta profesionalerako zentroa

- Ekintzailea:** Amaia Samaniego Arija
  - Helbidea:** Olakua 17-B, baxua
  - Telefonoa:** 672 98 94 72
  - E-maila:** Info@boayama.com
-  bo.ayama  
 Amaia Samaniego Arija


**T**arteka, Udaleko Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan, Amaia Samaniegok zabaldu duen **bô.Ayama garapen pertsonal eta profesionalerako zentroa** aurkezten dizuegu. Terapia pertsonalak, aholkularitza profesionala, mentoring-a eta formakuntzak eskaintzen ditu, besteak beste.



## Nolatan animatu zara zeure enpresa ekimena abian jartzera?

Urte asko enpresa-administrazioaren hainbat arlotan lanean egon ondoren, pertsona eta profesional moduan blokeatuta sentitu nintzen. Lana, familia eta eguneroko egitura guztia izanda ere, zerbait falta zela sentitzen nuen. Orduan, prozesu pertsonal bati ekin nion: neure barrura begiratzen hasi nintzen eta ordura arte ia kontuan hartu gabe nituen alderdi ukigaitzak lantzen hasi nintzen: emozioak, harremanak eta intuizioa.

Pixkanaka, arlo horri lekua emanez eta nire bizitzan ordena jarritz, aldaketa sakon bat bizitzen hasi nintzen. Nahi gabe, prozesu horrek nire garapen profesionalean ere eragin zuzena izan zuen, eta orduan konturatu nintzen **garapen pertsonalik gabe ez dagoela benetako garapen profesionalik**: pertsona moduan gertatzen dena, azken finean, arlo profesionalean ere islatzen da. Beraz, ikasteari ekin nion. **Sei urte eman ditut Madrilen** gaiari buruzko masterrak egiten, **formakuntza hori ezinbestekoa** baita proiektuan aurrera egiteko. Behin formakuntza jasota, ikasitakoa besteekin partekatzeko nahia heldu zen, eta horrela jarri nuen martxan garapen pertsonal eta profesionalerako zentroa.



## Zer zerbitzu eskaintzen duzu?

Pertsona, profesional eta enpresei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditut. Alde batetik, pertsonak laguntzen ditut **autoezagutza eta garapen pertsonaleko prozesuetan**, terapia saioen eta formakuntzaren bidez. Bestetik, profesional eta ekintzaileei laguntzen diet haien ibilbide profesionalean **argitasuna, oreka eta norabidea berreskuratzen**.

Enpresekin ere lan egiten dut, prestakuntza eta aholkularitzaren bidez, **lan-ingurune osasuntsuagoak** sortzeko, komunikazioa eta lidergoa hobetzeko eta gatazkak modu eraikitzailean kudeatzeko.



## Laguntzarik jaso duzu?

Bai, **Udalaren laguntza** jaso dut. Lehenengo urratsa Saiatu programaren bidez eman nuen, eta horrek proiektua martxan jartzeko espazio bat izateko aukera eman zidan.

Bestetik, **informazioa eta orientazioa** ere jaso ditut enpresa bat abian jartzeko beharrezkoak diren izapide eta kudeaketei buruz.

Gainera, dirulaguntzen bidez **laguntza ekonomikoa** ere jaso dut, bai lokalaren alokairurako, baita nire jarduera profesionala martxan jartzeko ere.



# 'Lagundu, laguntzen jarraitu ahal izateko'

## HOTZ-OÑATI taldeak 10 urte bete ditu

Duela hamar urte, Oñatin galdera xume batekin hasi zen guztia: zer egin dezakegu guk, hemendik, munduko beste puntaren batean giza eskubi-deak zapaltzen direnean? Erantzuna ez zen handinahieriazkoa izan. Ez genuen itsasontzirik, ez kanpamenturik, ezta nazioarteko egiturarik ere. Baina bagenuen zerbait oso indartsua: herri bat, prest zegoena laguntzeko.

Horrela jaio zen Hotz-Oñati. Eta hamar urte hauetan, herri honen eskutik, milaka kilometrotara dauden pertsonengana iritsi da Oñatiko elkartasuna.

Gure lana ez da *in situ* egiten. Gure lana hemen egiten da: plazan, azoka txikietan, janari bilketetan, pintxo postuetan, zozketetan, kamisetak saltzen, hazi-zakuak josten, motxilak prestatzen, eta batez ere, jendea sensibilizatzen. Hemen biltzen dugun laguntza, gero, bertatik bertara lanean ari diren elkar-teetara bideratzen dugu: Mediterraneoan bizitzak salbatzen dituen **Aita Mari** ontzira, Lesbosen egunero janaria prestatzen duen **Zaporeak** GKEra, Yemenen gosaria emanez umeak eskolara eramaten dituen **Solidarios sin Fronteras** GKEra, Palestinara, Saharara, Melillara, Valentziara...



**"Jende berria behar dugu; esku berriak, ideia berriak, indar berriak, proiektuari gogotsu eusten jarraitzeko"**

- Harremanetan jartzeko: [hotzonati@gmail.com](mailto:hotzonati@gmail.com)
- Instagram: [hotz\\_onati](https://www.instagram.com/hotz_onati)

premia dagoen lekura.

2024an bakarrik, 60.000 euro baino gehiago bideratu dira helburu horietara. Baina kopuruek ez dute benetan adierazten zer dagoen atzean: herritarren

konpromisoa. Izan ere, Hotz-Oñati ez da kide batzuek egiten duten zerbait. Hotz-Oñati Oñatiko herriak egiten du.

Tortillak prestatzen dituzuenok egiten duzue. Pintxoak erosten

▲  
HOTZ-OÑATIRA  
GERTURATU  
NAHI BADUZU,  
HURBILDU  
AZOKA TXIKIRA,  
IDATZI GURI,  
EDO HITZ  
EGIN KIDEREN  
BATEKIN.  
ATEAK ZABALIK  
DAUDE.  
EZ DA DENBORA  
ASKO BEHAR.  
PERTSONA  
GEHIAGO  
BEHAR DIRA



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64



**PAKITA**  
Altzariak

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



**Ingeleseko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

**Maite Aiestui Kortabarría**  
Irakaslea  
Arantzazuko Ama, 3 behea  
943 53 36 57  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
4sgoiena@gmail.com  
[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

dituzuenok. Janari poltsa ekarzen duzuenok. Zozketan parte hartzen duzuenok. Kamiseta bat erosten duzuenok. Mezu bat zabaltzen duzuenok. Horregatik, lehenengo eta behin, **eskerrik asko, bihotzez.**

Baina hamar urte bete ditugun une honetan, beste errealitate bat ere partekatu nahi dugu zuekin. Hotz-Oñatin lanean ari garenek oso gutxi gara. Ekitaldi bakoitzaren atzean ordu asko daude. Antolaketa, bilketak, garraioak, komunikazioa, materiala prestatzea, plazan egotea... eta askotan, pertsona gutxi gara lan askori heltzeko. Indar berriak nahitaezkoak dira, proiektuari gogotsu eusten jarraitu ahal izateko. Horregatik, urteurren hau ospatzeko modurik onena ez da atzera begiratzea, aurrera begiratzea baizik.

Agian hileroko azokan ahal duzunean egoteko prest zaude; agian bilketa batean lagundu

» Gure lana hemen egiten da: plazan, azoka txikietan, janari bilketetan, pintxo postuetan, zozketetan, kamisetak saltzen, motxilak prestatzen... eta, batez ere, jendea sentsibilizatzen.

» Gero, bertatik bertara lanean ari diren elkartetara bideratzen dugu laguntza: Aita Mari ontzira, Zaporeak GKEra, Solidario sin Fronterasa elkartera, Palestinara, Saharara, Melillara, Valentziara... premia dagoen lekura.

» Hotz-Oñati herriak egiten du. Hamar urte hauetan erakutsi dugu Oñati gai dela mundua pixka bat bidezkoago egiteko. Egin dezagun, denon artean, beste hamar urtez, gutxienez. Modu batera edo bestera laguntzeko prest baldin bazaude, jarri gurekin harremanetan.

dezakezu; agian sare sozialak kudeatzen; agian materiala prestatzen; agian ideiak ekarzen. Ez da denbora asko behar. Pertsona gehiago behar dira. Hotz-Oñati ez dadin izan gutxi batzuen esperantzen emaitza. Hotz-Oñati herri osoaren landare kuttuna izan dadin; sustriak errotuko dituen eta bere fruituak emango dituen.

Gure leloa beti izan da: **Lagundu laguntzen.** Orain, inoiz baino gehiago, esaldi horrek beste esanahi bat hartu du guretzat: **Lagundu, laguntzen jarraitu ahal izateko.** Hotz Oñatira gerturatu nahi baduzu, hurbildu azoka txikira, idatzi guri, edo hitz egin kideren batekin. Ateak zabalik daude.

Hamar urte hauetan erakutsi dugu Oñati gai dela mundua pixka bat bidezkoago egiteko. Egin dezagun, denon artean, beste hamar urtez gutxienez.

*Hotz-Oñati*

**TXIKI TXOKO HAURRESKOLA**  
**ATE IREKIAK**  
Martxoak 30, 31/Apirilak 13, 14, 15

Zatoz gu ezagutzera!!  
(Haurreskola 0-2 urte)

**IZEN EMATEA:**  
Apirilaren 13tik maiatzaren 4ra

Hitzordua hartu behar da:  
✉ [oinati.oinati@haurreskolak.eus](mailto:oinati.oinati@haurreskolak.eus)  
☎ Telefona: 943716405  
🏠 Helbidea: Olakua, 19  
📷 @txiki\_txoko\_oinati  
📘 Txiki-Txoko haurreskola

## Hika hitz egiten ikasi eta praktikatzeko ikastaro laburra



Udalak eta *Ingo Xonau!* ekimenak antolatuta, Hika berba egiten ikasi eta praktikatu nahi duen herritar orori irekitako oinarritzko ikastaroa egingo da apirilaren 18tik maiatzaren 16ra. Batez ere gazteak animatu nahi dituzte ikastaroan parte hartzera, baina, esan bezala, hitanoa ikasi, erabili eta zabaltzeko interesa duen edonork eman dezake izena. Ikastaroa dohainik da.

- **NOIZ:** Apirilaren 18tik maiatzaren 16ra
- **IRAUPENA:** Ordu eta erdiko 5 saio
- **EGUNAK ETA ORDUAK:**
  - Hiru goiz (11:00-12:30), apirilak 18 eta 25, eta maiatzak 16
  - Bi arratsalde (18:00-19:30), apirilak 30 eta maiatzak 8
- **NON:** Kultur etxean
- **IRAKASLEA:** Beatriz Irizar
- **IZEN-EMATEA:** Apirilaren 14ra arte, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) atariko formularioa beteta. Aguro ibili! Plaza mugatuak!

## Estatu Batuetako euskal diasporako 106 euskaldunen testigantzak eta bizi-ibilbideak bildu dituzte 'Diasporako Ahotsak' ekimenaren baitan

<https://diaspora.ahotsak.eus> webgunean kontsulta daitezke edukiak



*Badihardugu* elkarteko Idoia Etxeberria oñatiarrak eta Itziar Sapsoutham-ek jardun dute testigantzak biltzen

*Ahotsak* egitasmoan bi hamarkada baino gehiago darama Badihardugu elkarteak Euskal Herriko ahazko ondarea eta euskalkiak batu, zaindu eta zabaltzen. Orain *Diasporako Ahotsak* proiektuarekin beste urrats bat eman du, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

Egitasmoaren helburu nagusia euskal diasporako euskaldunen testigantzak batzea da, belaunaldiz belaunaldi diaspora osatu dutenena: haien bizipenak, euskararekin duten harremana eta Euskal Herriarekin duten lotura. Elkarrizketa sakonak eginez, emigrazioak, euskararen transmisioak eta nortasun hibridoaren eraikuntzak baldintzatutako bizitza-historiak jasotzea da asmoa, euskal herritarren oroimen kolektiboa sendotzeko.

*Badihardugu* elkarteko Idoia Etxeberria oñatiarrak eta Itziar Sapsoutham-ek hilabete eta erdiko bidaia egin dute AEBko bost estatutan (Idaho, Oregón), Utha, Nevada eta Kalifornia) barrena, eta belaunaldi ezberdinetako 106 pertsona elkarrizketatu dituzte. Bildutako materiala oso baliotsua da, jaioterritik urrun dauden testuinguruetan euskarari nola eutsi dioten eta euskara nola transmititu den ezagutzeko.

Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

ZURICH

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

# 1507an sorginak erre zituzten Oñatin?

> 30etik gora emakume erre zituztela uste du Ander Berrojalbiz historialariak  
> **Apirilaren 21ean** emango ditu argibideak, kultur etxean, 18:30etan

Ander Berrojalbiz (Durango, 1983) historialariak *Mapas del tesoro. Brujas, herejes y otras musas*. liburua plazaratu berri du. Lehenago ere idatzi izan ditu beste ikerketa lan batzuk euskal lurraldeetan jazotako sorgin-ehizeei buruz –*Los herejes de Anboto* (Pamiela), *Herejeen alaba* (Pamiela)...–, baina oraingo liburu honetan Oñatin gertatu omen ziren prozesuen berri ematen du. Egileak defendatzen duenez, 1507an sorgin prozesuak gertatu ziren Oñatin, eta 30etik gora emakume erre omen zituzten. Orain arte ezezaguna zen datu hau baieztatuko balitz, biktimen kopuruaren ikuspuntutik penintsulan ezagutzen den sarraskirik handiena izango litzateke. Horregatik, gaiak Oñatirekin duen lotura kontuan izanik, egilea bera Oñatira etorriko da apirilaren 21ean liburua aurkeztera, eta gertakari latz horien inguruan aurkitu duen dokumentazioa eta bibliografia aurkeztera. Kultur etxean izango da hitzaldia, arratsaldeko 18:30etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta, noski.



**Biktima kopuruaren ikuspuntutik penintsulan ezagutzen den sarraskirik handiena izango zen**

## EKIN Debagoiengan



Debagoiengan jarduera ekonomiko bat abian jartzeko asmoa duten pertsonen zuzendutako aurrez aurreko eta doako tailerrak antolatu ditu Mankomunitateak. Hauek dira tailerrak:

### ► **APIRILAK 20** (9:30-13:30)

'IDEIA AZTERTZEA ETA LAGUNTZAK: Ideiaren azterketa (CANVAS metodologia). Ekiteko laguntza eta baliabideak...'

### ► **APIRILAK 21** (9:30-13:30)

'OINARRIZKO KUDEAKETA: Prezioak eta kosteak kalkulatzeko. Gutxieneko fakturazioa...'

### ► **APIRILAK 22** (9:30-13:30)

'ABIAN JARTZEA: izapideak, era juridikoak, lokala, Gizarte Segurantzza, Foru Ogasuna...'

### ► **APIRILAK 23** (9:30-13:30)

'KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA lortzeko oinarrizko kontzeptuak'

### ► **APIRILAK 24** (9:30-12:30)

'FAKTURA BAI: Tailer praktikoa (ordenagailua eraman behar da)'

Tailerrak dohainik dira. Batean edo gehiagotan eman daiteke izena. Tailerrak Arrasaten izango dira, Mankomunitatearen egoitzan. Informazioa: [rgarcia@debagoiena.eus](mailto:rgarcia@debagoiena.eus) / 943793090

## Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoa Oñatin

Nekazaritzan erabiltzen diren ibilgailuen aldiko azterketa teknikoa (IAT-ITV) apirilaren 17an eta 20an egingo da Oñatin. Hilaren 17an Urriagaingo aparkalekuan (09:00) eta Dolaetxe baserri ondoan (13:00) egingo dira inspektzioak, eta apirilaren 20an Olabarrietan (09:00). Eraman beharreko dokumentazioa, hauxe: zirkulazio baimena, azterketa teknikoaren txartela eta aseguruaren ordainagiria. Aztertuko dira, besteak beste: direkzioa, balaztak, ardatzak, gurpilak, motorra, transmisioa....

## Euskal Espeleologia Jardunaldiak Oñatin

Apirilaren 2tik 6ra Euskal Espeleologo Elkargoak antolatutako 31. Espeleologia Jardunaldiak egingo dira Oñatin, Aloña Mendiko AMETekin elkarlanean. Bi eremutan lan egingo dute. Alde batetik, *Lizartza 1* sistema esploratu eta 100 metrotara dagoen *Gesaltza-Arrikruz* sistemarekin lotzen saiatuko dira. Bestetik, Aloñako mendilerroan prospekzio lanak egitea da jardunaldion bigarren helburua, inguru horretan dauden tamaina txikiko haitzuloak topografiatu eta katalogatzea, hain zuzen. Hitzaldi, dokumental emanaldi eta tailer banarekin osatuko dira jardunaldiak. Arantzasuko aterpetxean hartuko dute ostatu jardunaldietan parte hartuko duten espeleologoen.

## 'Herritu' dinamika aurkeztuko du Oñatiko Gure Eskuk

Gure Esku-k Euskal Herri mailan abian jarri duen dinamika da **Herritu**, euskal komunitatea trinkotu eta euskal herritartasuna munduari erakustea helburu duena. Beste modu batera esanda, burujabetzaren bidean aurrera egiteko ekintza da **Herritu**, nor bere burua euskal herritar moduan agertzeko. Finean, helburua da norbanako bakoitzak harrotasunez euskal komunitate honen parte dela adieraztea. Bada, ekimen berri honen harira, Oñatiko Gure Eskuko lantaldeak bi orduko lan saio bat antolatu du apirilaren 25erako –goizeko 10:00etan, Eltzian– **Herritu** dinamika aurkeztu eta Oñatirako erronkak modu kolektiboan definitzeko asmoz. Amaieran mokadutxoa egongo da.

## Elkar Heziko ikasleak irabazle Filosofia Olinpiadan



Gazteen pentsamendu kritikoa eta hausnarketa gaitasuna sustatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak antolatu dituen VIII. Filosofia Olinpiadan protagonismo berezia lortu dute Elkar Heziko ikasleak. Hala, Batxilergoko 1. mailako Rosangelak, Noemik eta Paulak lehen saria lortu dute bideogintzako kategorian, ikus-entzunezko hizkuntza eta filosofia uztartuz egindako lan bikainari esker. Argazkian daude sariarekin. Beste bi talde ere finalera iritsi dira. EAEko 40 ikastetxetako ikasleak parte hartu dute aurtan.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.:943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Iñigo Arregi

### Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

### Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

## Burrundaraka

Koldo Zumalde Barrena

Buzoian dut, musu truk: BURRUNDARAKaren 5. zenbakia. Argitaratzailea: Burrunda faktoria. Hartu dut eskuetan, eta begira natzaio: azala, mamia... kalitatea. Miresmena, harrotasuna: "Bada herri honetan ekimen ederrik!"

Anonimoa zait faktoria hori. Irudikatzen dut bihotz eta buru diharduen gazteen ekina, sasoi, jakituria... Huts egiteko beldur barik esango dut: "Horrelako emaitza batek lan itzelak ditu ezkutuan".

Beraz, ene zorion eta esker on publikoa zuei. Eutsi zuen bide bikain eta oparoari.

### >> OHAR ETA DEIALDIAK <<

## Hermansoloñaren batzarra

'Hermansoloña-Oñatiko Anaitze Solidarioak' GKEak **apirilaren 22an** egingo du urteko batzar orkorra, Garaa aretoan, 19:30etan.

## Bazkaria eta ate irekiak Txantxiku ikastolan

Txantxiku Ikastolaren Astearen baitan Ikastolako komunitatearen bazkaria egingo dute **apirilaren 18an** (14:30). Gainera, egun horretan bertan (11:00-13:00 artean), 0-2 urteko espazioak irekiko dituzte bertako ikasle eta familiek elkarrekin jolasteko. Beraien lagun eta familia berriak ere gonbidatuta daude, Ikastola ezagutu eta elkarrekin jolas egitera.

## Turismo aukerak Oñatin

Aste Santu eta Pazko Asteko jai egunetan bisita turistikoak egiteko aukera zabela egongo da Oñatin, herrigunea zein naturan. Hala, **Arrikruzeko Kobak**, **Arantzazu Santutegia**, **Arantzazuko Parketxea**, **Pottokaleku**, **Txokolateixia** interpretazio zentroa eta Oñatiko turismo bulegoak eskaintzen dituen bisitak –**San Migel errota**, **parrokia**– bisitatzeko aukera egongo da. Ondoko QRan duzue bisita gidatuak erreserbatzeko aukera.



## Oñatiko III. ANTIFA EGUNA

Mundu mailako faxismoaren eta eskuin muturraren gorakada izugarriaren aurrean, mugimendu antifaxista indartsu bat antolatu eta artikulatu beharra dago. Gure espazio eta gure ideien defentsan, honelako ekimenak bultzatzeko beharra ikusten dugu, eta hauek euskarri bihurtu praktika eta pentsamendu erreazionarioen aurka kontzientzia hartu eta eragin nahi dutenentzat. Bizitza duinen alde, berdintasunaren defentsan, askatasuna oinarri hartuta, zapalkuntza guztien aurka eta elkartasunaren armaren bidez eraginez. Apirilaren 25ean egingo den Oñatiko 3. Antifa Egunean ateratako diru guztia urriaren 12an, Gasteizen, Espainiar faxismoari aurre egiteagatik auziperatu, jazartu, isundu eta zaurituentzako bideratuko da.

## FAXISMOAREN AURREAN ATZERAPAUSORIK EZ!





## SARE SOZIALEN ETA PANTAIEN AUZIA, DEBEKUTIK HARAGO DOAN ERRONKA SOZIALA

Azken urteotan gero eta ozenago entzuten da alarma: gazteen osasun mentala okertzen ari da. Sare sozialekiko eta pantaillekiko adikzioa ere osasun mentaleko eta gazteekin lanean ari garen profesional guztien artean puri-purian dagoen gaia da, baita kalean ere. Horretaz gain, osasun mentaleko zerbitzu publikoak, berez nahiko urriak direnak gainera, kolapso egoeran daude, **eta ezin diote gai honi heldu, ez baita eurentzat lehentasuna.**

Gure zerbitzuetan jakinekua da nerabe askok egunean lau, sei ordu eman ditzaketela pantailen aurrean, baita gehiago ere, gomendutakoa ordea **askoz ere txikiagoa da, eta beti helduen gainbegiradapean.** Jakin ordea, ordu horiek, ez direla neutroak: isolamendua, lo falta, frustrazioarekiko tolerantzia txikiagoa eta gizarteratzeko zailtasunak ageri dira etengabe. Gazte batzuek esfortzu itzela egin behar izaten dute etxetik irtetzeko eta lagunekin kalean elkartzeko. Horrek, lehen adierazitako arazoetan eragiteaz gain, zerbait sakonagoa adieraz dezake: gazte batzuek bizipen errealean ordez simulakro digitalak nagusitzen ari dira. Ezin ditugu ordea gazteak gertatzen den guztiaren erantzule bihurtu. Kontuan izan behar dugu sare sozialak ez direla tresna hutsak, baizik eta arreta harraipatzeko eta mendekotasuna sortzeko diseinatutako sistemak. Bi ikuspegi horiek elkarren osagarri dira, adikzioa lortzeko makinak dira, eta honek galdera nagusi batera garamatza: **ulertu dugu zer dagoen benetan jokoan?**

Egungo sare sozialen algoritmoek gu erabiltzen gaituzte eten-gabe, **gu gara produktua,** eta bereziki populazio gazteena. Arretaren ekonomian oinarritutako plataformek trikimailu psikologiko sofistikuak erabiltzen dituzte atentzioa bahitzeko. Ez dira komunikazioa sustatzeko sortuak, baizik eta gure denbora ahalik eta gehien xurgatzeko. Nerabezaroan, identitatea eta autoestimua eraikitzen ari direnean, besteak beste, hiper-perfekziozko irudi etengabeek konparazio amaigabea eragiten dute. Pantailen autokontzeptu digital faltsua sortzea ahalbidetzen dute, pertsonak benetan ez diren irudi idealizatu bat eraikiz. Horrek autokontzeptu digitala gehiegi idealizatzea eta benetako autokontzeptua baztertzeko arriskua ekar dezake. Mentalki badakigu gezurra dela, baina emozionalki min egin dezake.

Dena den, pantailak gaitz askoren katalizatzaile indartsuak badira ere, ez dirudi gaitz guztien errudun bakarrak direnik. Izan ere, askotan pantailak aurrez existitzen diren zaugarritasunen katalizatzaile soilak dira. Antsietatea, depresioa, loaren edota elikadura nahasmenduak bezalako gaitzak ez dira atzo goizekoak, aurretik ere ezagutzen genituen, baina gaur egungo sare sozialen eta pantailen logikak areagotu eta iraunarazi egiten ditu errukirik gabe. Horretaz gain, eztabaida ez da teknologikoa soilik. Soziala eta politikoa ere bada. Pantailen auziak ez digu soilik galdetzen zenbat ordu ematen dituzten gazteek –eta ematen ditugun guk- TikToken edo Instagramen. Galdera sakonagoa eta deserosoagoa da: **zer gizarte eraikitzen ari gara?**

Nekearen gizartean bizi gara, denborarik gabe, eta **pantailak erabili ditugu hutsuneak estaltzeko.** Autoritate osasuntsua autoritarismoarekin nahastu dugu, eta mugak jartzeari beldurra diogu. Harremanak ordezkatu nahi dituen gizarte hiperestimulatu eta azeleratu batera eramaten gaitu honek, osasun mentaleko zerbitzuetara laguntza eske iristen den gazte bakoitza **gure sistemaren porrotaren seinale** baita neurri handi batean.

Debekuaren komenientzia ere eztabaidatu daiteke, baina ezin da izan erantzun bakarra. Araudiak behar dira, bai, eta enpresen erantzukizuna mahai gainean jarri behar da, zalantzarik gabe. Baina aldi berean, komunitate sareak indartu behar dira, auzo bizitza, kirola, kultur espazio partekatua, eta batez ere, harremanak eraiki behar dira. Teknologi hauek ezin dutelako pertsona bat ordezkatu, edota begirada bat ordezkatu. Gizarte bezala lotura sendoak, frustrazioarekiko tolerantzia eta harreman errealak baloratzen dituen komunitate eraiki behar dugu atzetik datozen gazteentzako, **eta helduok eta hezitzaileok eredu izan behar dugu.**

Ezin dugu onartu gure gazteen osasun mentala algoritmo hauen albo-kalte hutsa izatea, gazteen osasunak lehentasunak kokatzen ditugun ispilua izan behar du. Eta ispilu horretan begiratzeko eta **gaizki dagoena aldatzeko ausardia behar dugu.**

Ion Lopez Santamaria  
Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteriko Lantaldea

### Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

### ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

# BASO-BAINUAK

## natura beste modu batean bizitzeko esperientzia

Azken urteotan gero eta gehiago entzuten ari gara "baso bainuen" inguruan. Baina zer dira, zehazki? Baso bainua ez da mendian ibilaldi arrunt bat egitea, ezta animalia eta landare espezieak identifikatzea ere, naturan sakon murgiltzeko gonbidapena baizik. Geldiro ibiltzea, inguruko soinuei adi egotea, usainak sumatzea, hostoen mugimendua begiratzea edo lurra oinen azpian sentitzea... finean, basoak eskaintzen duen guztia zentzumenen bitartez bizitzea.

Japon da naturan oinarritutako ongizate praktika honen jatorria. *Shinrin Yoku* izenarekin da ezaguna, eta 80ko hamarkadan sortu zen, biztanleriaren estres maila murrizteko diseinatutako osasun programa nazional baten barruan. Geroztik, ikertzaile askok aztertu dute haren eragina, eta emaitzek erakutsi dute naturan modu kontzientean denbora pasatzeak estresa gutxitzen lagundu ez ezik, gizakiaren ongizate fisiko eta emozionala ere handitzen dituela.

Praktika hau *mindfulness* printzipioekin lotuta dago, hemen eta orain egotera gonbidatzen gaituena, esfortzurik gabeko kontzientziar baliatuz. Baso bainuan ez dago helburu zehatzik, eta bakarka zein taldean egin daiteke. Gidatutako baso bainuetan jarduerak sekuentzia zaindu

batean proposatzen dira, pixkanaka parte-hartzaileari konexio horretan murgiltzen laguntzen diotenak. Esperientzia guztiz pertsonala izaten da, eta bakoitzak nahi duen neurrian parte har dezake, integrazio zirkuluen bidez elkarbanatzeko aukera ere egonda. Horrek, natura eta gure buruarekiko lotura ez ezik, harreman sozialak sendotzeko aukera ere ematen digu.

Oñatin ingurune pribilegiatuan bizi gara, basoek eta mendiek inguratuta. Alabaina, askotan bertatik bertara ditugun paisaia horiek oharkabean pasatzen dira, eguneroko presa tarteko. Hartara, baso bainuek aukera paregabea ematen digute inguruko naturara beste modu batean hurbiltzeko: geldituz, zentzumenak piztuz eta batez ere, sentituz.

Natur Eskolatik herritarrentzat baso bainua antolatuko dugu datorren hilabetean. Basoa ez da soilik paseatzeko lekua, natura eta gure buruarekin berriro konektatzeko espazioa ere bada. Etorri basora presarik gabe ibiltzera. Batzuetan nahikoa da pausoak moteltzea inguruan dugunaz benetan ohartzeko. Agian, basoak ere badu zuri esateko zerbait, eta, batzuetan, behar duzun "atsedena" uste baino gertuago dagoela ohartuko zara.

Arreta ipini eta entzutera animatuko zara?

» Emaitzek erakutsi dute naturan modu kontzientean denbora pasatzeak estresa gutxitzen lagundu ez ezik, gizakiaren ongizate fisiko eta emozionala ere hobetzen dituela

» Agian, basoak ere badu zuri esateko zerbait, eta, batzuetan, behar duzun "atsedena" uste baino gertuago dagoela ohartuko zara. Arreta ipini eta entzutera animatuko zara?



### HERRITARRENTZAKO APIRILEKO EGITARAUA

#### BASO-BAINUA / Apirilak 28 (asteartea)

Miriam Martinez de Egiduaren eskutik.  
17:00etan Natur Eskolan.

\*Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da, apirilaren 24a baino lehen:  
- [natureskola@yahoo.es](mailto:natureskola@yahoo.es) edo  
- 943 71 64 04 telefonoan.



Bera Bera taldekoak garaipena ospatzen

## Goi-goi mailako eskubaloia Zubikoan

> Bera Bera eta Zuazo taldeek Euskal Kopako finala jokatuko dute **apirilaren 10ean**

> Aurretik, **Erresuma Batua** eta **Argentinako** emakumeen selekzioak jokatuko dute



Aloña Mendiko Eskubaloi sailaren 50. urteurreneko ekitaldiekin jarraituz, apirilaren 10ean sekulako ikuskizunaz goatzeko aukera izango dugu Zubikoa kiroldegian. Alde batetik, Super Amara Bera Bera eta Balonmano Zuazo taldeek emakumeen senior mailako Euskal Kopako finala jokatuko dute, arratsaldeko 19:30etan. Eta hori gutxi balitz, aurretik, 17:00etan, emakumeen elite mailako Erresuma Batua eta Argentinako selekzioak aurrez aurre ikusteko aukera izango dugu, *Basque Country International Women Cup* txapelketaren baitan. Partidu bakoitzak bere sarrera (5€) izango du. Aurrez Aloña Mendi tabernan eskura daitezke partidu baterako edo bietarako. Aloña Mendik herritar guztiak gonbidatzen ditu jardunaldi berezi honetan parte hartzera.



**MENDI IRTEERA** APirilak 19

### Elgea eta Zاراia mendikateak Saiturriko lepoa-Degurixa-Basobaltz-Urkulu

Urrutira gabe, Elgea eta Zاراia mendilerroetan zehar egingo da Aloña Mendik apirilako antolatutako mendirteera, **apirilaren 19an**. Elgea herrian abiatuta, Oñati eta Araba elkartzen dituen mendikatera igoko dira. Alabita gainetik igaro, Degurixara jaitsi eta, ondoren, Basobaltzetik Kargalekura eta, azkenik, Urkulun amaituko da ibilaldia. Bidean zehar AMET espeleologia taldeko kideek Degurixa inguruko karstaren ezaugarriak azalduko dituzte. Guztira 14 kilometroko ibilbidea (650 m+). Ez du zailtasunik. Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Izena emateko epea **apirilaren 9tik 16ra**, [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) helbidean, autobusa bete arte (50 plaza). Federatuta egon behar da.

### Berritasunekin dator herriko pilota txapelketa

Urtero bezala, gizonezko eta emakumezkoen txapelketak bereiziko dira, baina, aurten, ekainean hasi ordez maiztean hasiko da. Beste berritasun bat zera da, gizonezkoen txapelketan partidu gehiago jokatuko direla; orain arte 4-5 bikoteko taldeak izaten ziren, baina aurten 7-8koak izango dira eta, beraz, bakoitzak 6 bat partidu jokatuko ditu. Azken berritasun moduan, gizonezkoen txapelketako 8 bikote onenek txapeladunen txapela izango dute jokoan irailean, eta hurrengo 8 bikoteek 'B' serieko kanporaketak eta finala jokatuko dituzte. Izen-ematea apirilean irekiko da.



### Lan bikaina egin du Pedregalek Espainiako txapelketan

Martxoaren 20tik 23ra Sabadellen jokatutako Espainiako Infantil mailako txapelketan parte hartu du Julen Pedregalek. Hiru probetan aritu da eta hiruratan hobetu ditu bere markak, Bizkar erako 50 metro (31:20), 100 metro (1.06:05) eta 200ekoan (2.23:78). Azken honetan 8. sailkatu zen bere adinean.



### Gipuzkoako txapeladunak xakean

Oraindik ibilbide motza duen arren, Oñatiko Xake Taldea lana oso ondo egiten ari da, taldeko gaztetxoek Gipuzkoako Topaketan lortutako emaitza bikainek erakusten duten moduan. Hala, Benjamin mailan (8-9 urte) talderik onena izan zen Oñatikoa, eta banaka ere Julen Larrañaga oñatiarrentzat izan zen garaipena, jokatutako zazpi partidak irabazita.

Xake taldeko ordezkariak oso pozik daude emaitzekin, eta Oñatin xakea sustatzen jarraitzeko asmoa berretsi dute. Ildo horretan, gogorarazi nahi dute klubeko ateak zabalik daudela eta, norbaitek proba egin nahi izatera, asteazken arratsaldetan (17:00) egoten direla Zubikoa kiroldegian. Ez du axola mailak; helburu nagusia ikastea eta talde giroan ondo pasatzea da.



# 'XEHATU 78'

## Kontaktuzko kirol taldea eratu da Oñatin

> Boxeo, kickboxing eta Jiu-Jitsu arte martzialean aritzen dira, oraingoz. > Taldeko kide batzuek apirilaren 25ean, 'Antifa Egun'aren baitan, egingo den erakustaldian parte hartuko dute



Roberto Posada eta Auritz Esnaola, **Xehatu 78** taldeko sustatzaileetako bi. Eltzian du egoitza kontaktuzko kirol talde berriak.

Oraingoa dela urtebete sortu zen **Xehatu 78** taldearen hasia, GKS (Gazte Koordinadora Sozialista) antolatutako autodefentsa ikastaroen harira. Bertan elkartu ziren lagun batzuei aurrera jarraitzeko gogoia piztu zitzairen eta kontaktuzko kirolen talde bat abian jartzea pentsatu zuten. San Martingo ermitako arkupeetan hasi ziren aurreneko entrenamendu saioak egiten, baina iazko azaroaz geroztik Eltzian dute topagunea, bertako koordinazio taldearen onarpena jaso ostean.

Kontaktuzko kirolekiko zale-tasunak elkartu baditu ere, taldearen helburuen artean eragin politikoa edukitzea ere badago. "Ikusten genuen kirol hauetan mugitzen den jendea, oro har, ideologikoki eskumatarra izaten dela, oso eskumarantz lerratuta dagoen esparru bat dela, eta jende asko erakartzen ari dela. Beraz, kontraboterea egin eta herriari alternatiba antifaxista bat eskaini beharra ikusi genuen", azaldu digu Roberto Posadak, taldeko sustatzaileetako batek.

"Horrez gain, herriko gazteei kalitatezko eta doako kirol zerbitzu bat eskaintzea ere bada gure helburua", gehitu du Auritz Esnaolak. "Gaur egun murrizak dira gazteok kirola dohainik eta modu duin batean egiteko daukagun aukerak, eta egoera horri aterabidea emate aldera

**Coinbroker**  
EUSKADI

ASEGURU ARTEKARITZA

☎ 943 08 90 06

📞 688 77 45 31

✉ oinati@coinbroker.eus

📍 Arantzazuko ama 9, behea



jai da **Xehatu 78** kirol taldea. Hemen erakutsi nahi dugu posible dela denon artean autogestionatutako kalitatezko gauzak egitea. Ikusi besterik ez dago jende pila bat gerturatzen ari dela eta taldea oso ondo funtzionatzen ari dela". Oraingoz 50 bat kide ditu taldeak; gehienak mutilak, baina neskak ere badira tartean. "Emakumeen artean ere interesa badagoela ikusten ari gara eta, horregatik, ordutegia zabaldu eta talde ez-mixto bat jartzeko aukera aztertzen ari gara, emakumeen presentzia areagotze aldera", azaldu digute.

### BOXEOA, KICKBOXINGA ETA JIU-JITSUA

Oraingoz, hiru kirol modalitate praktikatzen dituzte 'Xehatu 78'-koek: boxeo, kickboxinga eta Jiu-Jitsu. Azken hau, ezezagunena, beharbada, Japonian jatorria duen borroka-arte edo defentsa pertsonaleko sistema bat da, lurrian egiten dena, gorputzaren pisua eta inertiak baliatuz. Indar fisikoa baino, palankak, giltzak eta bestelako teknikak erabiltzen dira aurkaria menderatzeko.

Kickboxinga, berriz, boxeoaren ukabilkadak eta arte martzial klasikoetako ostikoak konbinatzen dituen borroka-kirola da. Modalitate ezberdinak daude, eta Eltzian K1-ean aritzen dira, non ukabilez gain, hankak eta belauak ere erabil daitezkeen kolpeak emateko.

Boxeo eta kickboxingeko entrenamenduak batera egiten dituzte. Asteaz lau edo bost saio, goizez zein arratsalde. Jiu-Jitsu-koek pare bat entrenamendu egiten dituzte astean, arratsalde. Entrenamendu saioak ordu eta erdikoak izaten dira. "Aurrena beroketa ariketak egiten ditugu" azaldu digu Posadak. "Kirol hauetan oso garrantzitsua da ondo berotzea, lesioak ekiditeko. Ondoren, 40-45 minutuko tartean teknika lantzen dugu, eta, bukarran, tarte bat uzten dugu aurrez landutakoa praktikan jartzeko eta, nahi duenak konbate edo borroka saio bat egiteko. Ez da



## ERAKUSTALDIA 'ANTIFA' EGUNEAN

**Apirilaren 25ean Oñatin egingo den 'III. ANTIFA EGUNA'**ren baitan boxeo eta kickboxing erakustaldia egongo da plazako frontoian (17:00) eta bertan parte hartuko dute 'Xehatu 78' taldeko kide batzuek, inguruko herrietako beste talde batzuetako ordezkariekin batera. "Antolatzaileen gonbita jaso dugu eta bertan egongo gara taldeko kide batzuk. Animatu egin nahi ditugu herritarrak bertara hurbil daitezen, kirol hauek hobeto ezagutu eta edonork egin ditzakeela ikusteko. Gainera, kontutan hartuta egun horretan batuko den dirua bere momentuan Gasteizen Falangeari aurre egiteagatik isunduak eta jazarriak izan diren gazteentzako dela, herritar guztiak gonbidatzen ditugu bertara".

derrigorrezkoa".

Borroka saioak egiteko derrigorrezkoa da babestuta egotea. "Kaskoa aukeran ematen dugu – lokalean bertan ditugu, norbaitek erabili gura badu-. Horrez gain, boxeoan aritzeko eskularruak 14 ontzatik gorakoak izatea eskatzen dugu, bigunagoak. Kickboxingean aritzeko eskularruez gain tibia-babesgarriak ere beharrezkoak dira, eta, beti, baita Jiu-Jitsuan ere, ahoko babesa ezinbestekoa da, badaezpada", azaldu digu Esnaolak.

### KONTAKTUZKO KIROLEN BALIOAK

Kontaktuzko kirolek gizartearen duten irudi txar edo negatiboari dagokionez, aurreiritzi asko daukela uste dute. "Kolpea jaso-

ematea oso gaizki ikusita dago, baina jendeak ez du ulertzen kirol moduan praktikatzen denean ez dela futbolarekiko oso desberdina. Ez da batere kirol lesibo; agresibo bai, nahi baduzu, baina ez bortitza. Hemen elkar zaintzan sakontzen saiatzen gara, bereziki hasiberriekin; ez da biolentzia sustatzen eta hemendik ez dira pertsona bortitzak ateratzen, kontrakoa baizik", dio Posadak. "Lehiaketan bai zoaz irabaztera, baina, gure kasuan, gehiago da aurrez landutako mugimendu eta konbinazioak praktikan jartzea, baina ez min ematea, indarra kontrolatuz beti ere", erantsi du Esnaolak.

Kirolak osasun mailan dakartzan onura guztiez gain, kontaktuzko kirolean lantzen diren balioak –diziplina, elkarrenganako zaintza, errespetua eta laguntasuna...– azpimarratzen dute **Xehatu**-koek, sortzen duen adrenalina *txutea* ahaztu barik, noski. "Gaur egun, gainera, bizi dugun oldarraldi erreakzionarioaren aurrean ezinbestekotzat jotzen dugu autodefentsarako gaitasunak lortzea, egoera deserosoei aurre egin ahal izateko, izan eraso bat, edo izan pertsona ezatsegin batzuen presentzia".

'Xehatu 78' taldea irekia da, eta zaletasuna, interesa edo jakinmina daukan edonok parte har dezake. "Eskatzen dugun bakarra da minimo ideologiko batzuk. Azken batean, talde antifaxista bat gara eta printzipio horrekin bat ez datozen pertsonak ez dira ongi etorriak".

Gainerakoan, ez da ezaugarri fisiko berezirik behar. "Hemen ez dugu inor epaitzen. Eskatzen dugun bakarra da gogoia eta konpromiso minimo bat. Baina, bestela, arlo fisikoan, egokitu egiten gara mundu danak izan dezan sarbidea kirolera". Oraingoz kontaktuzko kirolean zentratu dira, baina aurrerago ez dute baztertzen bestelako kirol eta jardueri ere bide ematea.

Bitxikeria bat amaitzeko; 78 zenbakiak Oñatiko telefono finkoen aurreneko bi digituei egiten die erreferentzia. ■



**Antifaxismoa eta klase autodefentsa ipar, Oñatiko gazteei kirola dohainik eta modu duin batean egiteko aukera eskaintzearen sortu da XEHATU 78**

# 'SUPITUKI'

## antzerkia eta bat-batekotasuna eskutik helduta

> Egoitz Aizpuru oñatiarraren *Supituki* taldeak inpro-antzerki saioa eskainiko du apirilaren 19an

> Aldez aurreko gidoirik gabe, ikusleek proposatutako hitz, esaldi edo egoera batetik abiatuta sortzen dituzte istorioak.



**2026KO APIRILAREN 19AN**  
**Verduri Hall-Gaztelekuan, 12:30**

Antzerki inprobisatua asko hazi da azken urteetan, Madril aldean batez ere. Euskal Herrian ez hainbeste; are gutxiago euskaraz. Eta horixe da, hain zuzen ere, Egoitz Aizpuru buru duen antzerki taldeak Oñatin eskainiko duen *Supituki Show* emanaldiaren oinarria: inprobisatutako antzerki saioa euskaraz.

Eta zer da, bada, antzerki inprobisatua? Egoitzek berak azaldu digu: "Aldez aurreko gidoi edo testurik gabe egiten den antzerkia da. Momentuan bertan sortzen dira istorioak, pertsonaiak eta elkarriketak, normalean ikusleek proposatutako esaldi, hitz edo egoera batetik abiatuta. Ez da istorio bakarra kontatzen; gure emanaldia bloke ezberdinetan banatzen da, eta bloke bakoitzean dinamika ezberdinak jartzen ditugu jokoan istorioak sortzeko, ikusleak bidelagun ditugularik".

Izan ere, bat-bateko antzerkiaren ezaugarri nagusietako bat ikus-entzuleekiko interakzioa da. Publikoa ez da ikusle soila; konplizea ere bada. Butakatik iradokitako hitz, esaldi edo egoera bat istorio baten abiapuntu bihurtu daiteke, aktoreek beraiek ere nola amaituko den ez dakitena.

### OÑATI, MADRIL eta BILBO

*Supituki* izena ezaguna egingo zaio, beharbada, bati baino gehiagori, izan ere Oñatin sortu



Supituki antzerki taldeko kideak

baitzen, Egoitzek gogorarazi digun moduan. "Oñatiko *Irazan* antzerki gunea sortu zenean, duela hamar bat urte, proiektu ezberdinak jarri ziren martxan, eta horietako bat *Supituki* izan zen, antzerki inprobisatua lantzeko. Urte eta erdiko ibilbidea egin genuen, baina taldekideetako batzuk kanpora joan ginen eta bertan behera geratu zen ekimen hura".

Egoitz bera izan zen kanpora joan zen horietako bat. Madrilera joan zen antzerki inprobisatuaren teknikan trebatzera, eta ia zazpi urte eman zituen bertan, Espainia mailan inprobisazio eszenikoan konpainia ezagune-

**/// Bilbon ere gero eta indar handiagoa hartzen ari da inpro-antzerkia, baina dena gazteleraz da, eta nik aspaldian neukan antzerki inprobisatua euskaraz egiteko gogo**

netakoa den *Jamming* taldean, bat-bateko istorioen sorkuntza lantzen. "Handik bi urtera beraiekin lanean hasi nintzen, eskolak ematen eta, tarteka, aktore lanak egiten *bolo* edo ekitaldi ezberdinetan".

Baina Madril oihan handi bat da, zentzu guztietan, eta orain dela urte eta erdi Bilbora etortzea erabaki zuen Egoitzek, *Jamming* konpainiak bertan duen eskolan lan egitera, eta bertan dihardu egun. Eta giro horretan berpiztu da *Supituki*. "Bai, Bilbon ere gero eta indar handiagoa hartzen ari da inpro-antzerkia, baina dena gazteleraz da, eta nik aspalditik neukan antzerki inpro-



Egoitz Aizpuruk  
7 urte eman ditu  
Madrilen antzerki  
inprobisatuan  
trebatzen eta  
lanean.  
Egun Bilbon  
dihardu, eskolak  
ematen eta  
aktore  
lanetan



**Saioak guztiz inprobisatuak dira: ikusleen iradokizunetatik abiatuta, aktoreek istorio bakarrak eta errepikaezinak sortzen dituzte momentuan. Saio biziak dira, freskoak, eta horrek egiten ditu erakargarri**

bisatua euskaraz egiteko gogoia, eta, hala, nire ikasle batzuk eta beste eskola bateko lagun batzuk elkartu eta lanean hasi ginen orain dela urtebete eskas. Taldeari *Supituki* izena jartzea proposatu nuen –Oñatiko lagunei baimena eskatuta, noski–, eta hortxe gabilta, lanean, gustura. Otsailean hiru emanaldi egin genituen, martxoan beste hiru, apirilean bi, maiatzerako beste hiru lotuak ditugu... Inoren atea jo barik ateratzen ari dira saioak, ahoz aho zabaltzen ari den zerbait da, eta oso pozik gaude. Gauzak txukun samar egiten ari garen seinale". *Supituki Eskola* ere sortu du Egoitzek eta, oraingoz, talde bat dauka, Getarian.

#### SAIO FRESKOAK, BIZIAK

Gogotsu dago Egoitz *Supituki* Oñatira ekartzeko, eta animatu egin nahi ditu herritarrak saiora.

"Ordu eta laurden dibertigarria, originala eta freskoa" agindu digu. "Denon artean, aktore eta ikusle, magia eszenikoa sortuko dugu. Antzerki inprobisatuko funtzio bakoitzean errepikatzen ez den zerbait gertatzen da, saio biziak dira, eta horrek egiten du erakargarri, nire ustez, antzerki inprobisatua".

Oñatin *Supituki* taldeko lau kide eta soinu teknikaria ikusiko ditugu oholtza gainean "Antzerki inprobisatuan ez dago eszenografiarik eta soinua lagungarria izaten da istorioak girotzeko. Soinu teknikariak ere inprobisatu egiten du efektu berezien bidez", azaldu digu aktore oñatiarrak.

**Supituki Show** emanaldia apirilaren 19an izango da, Verduri Hall-Gazteleguan eguerdiko 12:30etan –*matinée* saioa–. Sarrerak (8€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eskura daitezke.

## RYOSUKE KIYASU eta MURSEGO musika proposamen berezia Burrunda Faktoriaren eskutik

**APIRILAK 8, ASTEAZKENA, ANTIXENAN, 19:00**



> Bere emanaldi berritzaileengatik mundu mailan ezaguna den kaxa-bakarlaria da Ryosuke Kiyasu



Ryosuke Kiyasu eta Mursego bakarlarrien kontzertua antolatu du Burrunda Faktoriak; "proposamen berezia eta errepikaezina" izan daitekeena, antolatzaileen ustez. Ryosuke Kiyasu bere emanaldi berritzaileengatik mundu mailan ezaguna den kaxa-bakarlaria da. Beste hainbat taldetan ere aritzen da bateria-jole –Kiyasu Orchestra, Keiji Hainoren Fushitsusha...–. Baina arreta berezia erakarri du bere bakarkako ibilbideak. Horren erakusgarri da mundu mailako jaialdietan jo izana, edota bere bideoek Youtuben duten ikustaldi kopurua. Zer egiten duen azaltzea ez da erraza; beraz, onena, emanaldia ikustera joatea.

Mursego (Maite Arroitauregi) ezagunagoa da gure artean. Hainbat taldetan aritua – Anari, Lisabö, Xabier Montoia...– bakarka ere ibilbide luzea du dagoeneko bere txeloarekin, eta Oñatin ere behin baino gehiagotan izan da. Zer ekarriko du oraingoan Antixeneko oholtzara? Gozagarria, seguru.

● OÑABIKE  
est. 95

# Hans Zimmer zinerako soinu-banda konposatzaile handiaren musikaz gozatzeko aukera, Oñatiko musika bandaren eskutik



*Gladiator*, *Pirates of the Caribbean* edo *The Lion King* –soinu banda onenaren Oscar saria– bezalako filmetako musika ederraz gozatzeko aukera izango dugu.

**APIRILAK 19, IGANDEA, ZUBIKOA PILOTALEKUAN, 13:00**

'Emozioak Zimmerrekin' izenburupean, denboraldiko bosgarren kontzertua eskainiko du Oñatiko musika banda apirilaren 19an (Zubikoa pilotalekuan, 13:00). Hans Zimmer (Frankfurt, 1957) konpositorearen musika izango da protagonista, musikagile alemaniarrek hainbat filmetarako sortutako musika zoragarriaz gozatzeko aukera izango baitugu. Guztira 150 bat pelikulatako soinu banden egilea da Zimmer, –bi Oscar sari ere baditu, *The Lion King* eta *Dune* lanengatik–, eta haren musikak sortzen dituen emozio, indar eta epikotasuna oholtzara ekartzen saiatuko da musika banda, Aitor Bian-Bidarteren zuzendaritzapean, publikoari zinema handiaren giroa zuzenean bizitzeko aukera emanez.

## BANDA BARRUTIK EZAGUTZEN

Apirilaren 19ko kontzertua hasi aurretik, eguerdiko 12etan, Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako 50 bat ikasleek –aurten instrumentua aukeratu behar duten neska-mutikoak– musika banda bat nola osatzen den ikusteko aukera izango dute, bandako zuzendariaren eskutik. Honek gidari lanak egingo ditu bandako sekzio ezberdinetan zehar, eta haurrek instrumentu desberdinak bertatik bertara ikusi eta entzuteko aukera izango dute.

Gainera, ondoren bandaren kontzertua leku pribilegiatu batetik entzuteko aukera izango dute, musikariaren artean egongo baitira kontzertuaz gozaten, bandako kide balira bezala. Musika bandaren harrobia zaindu eta etorkizuna bermatzea da ekimen honen helburua. Beraz, publiko orokorrari ez ezik, kontzertu honetarako gonbite berezia egiten zaie musika eskolako ikasleei eta hauen gurasoei, familia giroan gozatzeko moduko kontzertua izango baita.

## EGITARAU OSOA (51:20)

- *Crimson tide (Marea roja)* - Arr.: E. Rozendom (5:20)
- *Kung Fu Panda* - Arr.: L. Hjortenhammar (11:30)
- *Time from Inception* - Arr.: J. Kadlec (6:00)
- *At World's End* - Arr. Rozendom (12:30)
- *Gladiator* - Arr.: M. Legnaro (9:00)
- *The lion king* - Arr.: H. Van der Heide (7:00)

Oharra: Kontzertua dohainik da, baina sarrera eskuratu behar da Txokolateixan



Aitor Biain zuzendaria musika bandari buruzko azalpenak ematen musika eskolako ikasle talde bati iazko kontzertuan.



**Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:**

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, beheak  
638 16 79 84  
mikel.egana@egentes.catalanoccidente.com



**PINTURAS**  
**URBIA**  
**MARGOAK**

Ultzezin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

# Irakurketa performatiboa eta tertulixan saio irekia, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

Ane Zubeldia eta Hasier Larretxea idazleak izango ditugu udal liburutegian



Bi hitzaldi, Oñati Abesbatzaren 60. urteurreneko egitarauaren baitan



Oñati Abesbatzaren 60. urteurrena ospatzeko antolatutako egitarauaren baitan, bi hitzaldi izango ditugu apirilean. Aurrenekoa, 'Oñati Abesbatzaren Historia' Jose Antonio Azpiazu historialariak emango du eta, hain zuzen, Oñati Abesbatzaren ibilbideko mugari nagusien errepaso egingo du. **Apirilaren 21ean** izango da, kultur etxean, 19:30etan

## 'GARUNA ETA MUSIKA'

Bigarren hitzaldia **apirilaren 28an** izango da (zine aretoan, 19:30), eta oraingo honetan Gurutz Linazasoro mediku eta neurologoa izango da hizlaria. 'Cerebro y música' du izenburua, eta, hain zuzen, musikak garuneko ia area guztiak aktibatzen duen gaitasunaz jardungo du.

Apirila liburuaren hilabetea izaten da. Gogoratu, hilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela, eta 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna. Hilabete berezia da, beraz, liburutegientzat eta liburuak maite dituzten guztientzat. Horregatik, udal liburutegiak ekitaldi bereziak antolatu ohi ditu urtero apirilean, eta aurten ere, Aste Santuko jai egunak tartean diren arren, egitarau berezia prestatu dute. Hala, Ane Zubeldia Magriñá eta Hasier Larretxea Gortari poeten lanak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu.

## ANE ZUBELDIA ETA HASIER LARRETXEAK

Apirilaren 14an, udal liburutegian (18:00) euskarazko Tertulixan saio irekia egongo da Ane Zubeldia Magriñá -bere bi amonen abizenek osatutako 'ezizen artistikoa' da- idazle eta itzultzaile hondarribitarra bertan dela. Itziar Ugarte oñatiarrak gidatuko du saioa eta Zubeldiaren estreinako poema liburuari buruz -**Kontra** (Susa)- berba egiteko aukera egongo da, egilearekin berarekin. Hainbeste gauzaren kontra dagoela esatetik, sekula ukituko ez dituen azalerez jabetzera egiten du liburu honetako ahots poetikoak. Interesa duen herritar orori irekitako saioa izango da.

Hasier Larretxeak, Baztango poeta, narratzaile eta performerrak, **Guztia urruntzen da** bere azken poesia liburuaren irakurketa performatiboa egingo du. Bere lanak identitatea, lurraldea eta memoria esploratzen ditu, antzinakoa eta garaikidea lotzen dituen hizkuntza baten bidez. Liburu honetan, bereziki, haurtzaroko minez ari da eta gaurko argi izpiez, beste bizitza bat aurkitzeko irrikan, bizitza honen beraren baitan. Apirilaren 22an, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan.

**TELLATU eta KANALOIAK**  
Garbiketa eta mantenu orokorra  
688855468  
www.kzz.eus

**ARANBURU ALTZARIAK**  
Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK**  
**LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK**

**NI moda**

**MODA BEREZIA**  
Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

## &gt;&gt; LITERATURA TXATALAK (XIII)


**Manuel Umerez Goribagoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (II)**

Testua: Roberto Altuna

**MANUEL UMEREZEN ESKUIZKRIBUAK**


Manuel Umerezek bi liburu mardul idatzi zittuen Oñatiko euskeran, 1805ian bata eta gerotxuago bestia, 'Oñatiko eskuizkribuak' edo 'Arrazola etxeoak' izenarekin ezagutu izan diranak. Lehenenguk 440 orrialde dako eta bigarrenak 478. Hona hemen euren izenburuak hurrenez hurren:

1.- *Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.*



Oñatiko San Migel parrokiako abade benefiziodu horren testuan, gaur egunian orainddiok argitaratu barikuan, osaba abadiak berba egitten xao illobiari era guztietako aholkuak eskiñiaz, eta Jaungoikuarekin, bere buruarekin eta lagun hurkuarekin dittuen eginbiharrak gogoratuaz. Garai horretan bizitten dagozen fede galtzeiaren arriskua azpimarraketan dau behin eta berriz. Gaiñera, animiaren hiru etsai amorratuetatik –Diabrua, Mundua eta Haragixa– zela librau erakusten xao illobiari. Eta horrez gain, nekazari lanaz berba egitten xao, egon leiken lanbiderik onena dala esanaz.

2. - Bestiaren izenburua hauxe da: *Errectore Jaun baten instruccinuac ezcondurik vizi dan bere Adisquide Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.*



Aittatutako moduan, lan bixak 450en bat orrialde ingurukuak dira, egille berarenak eta eduki eta forma aldetik antz haundikuak. Testuaren interes filologikua garbixa bada be (Oñatiko euskera lantzen dauen lehenengo idazlia dalako), are interesgarrixagua da bere edukixa, garaiko erreferentziaz jositta egotiaz aparte, erakusten dauen pentsakeriagatik, batez be.

Bai Umerezek bai Juan Jose Moglek didaktismo osoz jardun euen, garai neoklasikuaren ezaugarri nabarmena gordeaz, nun "aitak semiari (edo osabak illobiari, gure kasuan) erakusten xao" formula ebalten dauen horretarako. Edozein modutan, animak salbaittaren asmo nagusipeian, baserritarraren lanaren eta bizimoduaren gorazarre bizixa egitten daue, argumentu zahar eta barrixak modu sistematikuan ebalixaz. Era berian, baserritar/kaletar kontrastia ezin argixago ageri da Mogeldarrengan eta Umerezengan, eta ezin garbixagua da, baitta be, pekatuan jausteko arriskuaren aurrian moltzo bixen artian daguen aldia, arrisku gehixen betik kaletarrak izaten dauela: "kaleetako bizimodu ta arrisku edo labanarri gustijak azaldeetan asi ezkeru, liburu andi asko baltzitu biarco litzaatez, txikin onen lekuban" dixo J.J. Moglek, *Escolia* liburuaren hitzaurrian.

Ikusten danez, bere sasueko beste euskal idazle gehixenak letxe, gaur eguneko pentsaitteko moduarekin konparauta, bestelako edo 'antigualeko ideak' defenditten zittuen Umerezek, gure artian *euskaldun fededun* esaeriagaz entendi izan diranak. Haren berbetan baserritarrari "bere Animiaren nekazaria" izaten erakusten xaue idazlanok, asmo nagusi hori buruan ebillela eskribiu zittuen-eta bi lan horreik.

Dana dala, dotriña-zatixen artian noizian behin tartekaitten dira sasue hartako ohittura eta pentsamoldien argibide kuriosuak eta interesgarrixak, historia eta etnografiaren alorrian kontuan izateko moduko ekarpentxuak, duda barik. Adibidez, zelakuak ziran orduko jantzixak, janarixak, txokolatiaren inportantzia, Gaiztazuloko diabruen kontuak, egoera politikuaren gaiñeko komentarixuak, eta abar. Baiña M. Umerezen idazlanak badakoi beste balixo erantsi bat: ordura arte ixixa ebal bariko euskeriaren aldaera batian idatzixak izatia, Oñatiko euskeraz, alegia. Hori bai, idazkera dotore eta jaso samarrian. Halaxe diosku Jerardo Elortzak "Harrigarria da, benetan, ia landu gabeko euskararen herri-mota batean izkiriatzeak dakartzan zailtasunak gaintzeko Umerezek erakusten duen trebezia aparta. Maila apalagoan baldin bada ere, Joanes Leizarragaren ahalegin eskerga gogorarazten digu". Hortaz, euskal filologiaren esparruan be dokumentu garrantzitsuak dira Goribargoitiko semiak moldautako eskuizkribu honeik.

Ikusi degigun, bada, bere bi liburuetako pasarte bana, esandako guztiaren erakusgarri:

**"Es deusut esan, nire illoba, nekazaritzaiaren honra geiagoko oneik, beren aiziagaz arrotu zaitian, baizikan emun degiozun zeure nekazaritzaiari merezi daben estimazinoa eta jarraitu ez degiezun buru bagako nekazari nagi batzubei, zeñak honra geiago eukiko dauben pretestuagaz iges egiten deusai beren ofizioari"** (*Osaba baten...*, 232-233).

**"Itzain batek bere idiakaz kargaren bat burdian nunbaitera eruan gura dabenian, lenengo gertaketan dau burzilla, ondoren eraazten deusita bere punta bietan txirrikak, gañian ifinten deusita burkama zabala, ezarten deusita deritzon kargia, idiak uztarrian lotzen ditu, eta onela kargia eruan eraiten deuste, bera idi aurreko dala. Orobat Jaungoikuak gugaz egiten dau, salbazinoko bidetik eruan biar dogun kargia eruan eraiteko"** (*Errektore baten...*, 54).



Iturrixa: Jerardo Elortzaren zenbait artikulu eta Belen Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAKO**  
Garbitasunaren usaina

**653 70 45 47**  
Oñati

# AGENDA

## ANTZERKIA

APIRILAK 19 / 12:30

### 'SUPITUKI SHOW'

Egoitz Aizpuru oñatiarraren *Supituki* taldearen antzerki inprobisatuko saioa Verduri Hall-Gaztelekua.

## HITZALDI/MAHAI-INGURUAK

APIRILAK 11 / 18:00

### 'NO EN MI NOMBRE: ISLAMOFOBIA EN NOMBRE DEL FEMINISMO'

Bidaya emakume musulmanen elkarteko kide Hajar Samadiren hitzaldia, Emakumeentzako Jabetze Eskolak antolatuta. [Kultur etxeko erakusketa gelan.](#)

APIRILAK 14 / 17:30-18:30

### 'JOLASAREN GARRANTZIA'

Hizlaria: Nekane Odriozola psikomotrizista; 0-6 urteko haurren gurasoentzat. [Txaloka Ludotekan.](#)

APIRILAK 15 / 10:00

### 'ERREKTORE IZATEA. BIZPENAK ETA BALORAZIOA'

2009-2017 artean EHUko errektorea izan zen Iñaki Gorizelaiaren hitzaldia, Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana.](#)

APIRILAK 21 / 19:30

### 'OÑATI ABESBATZAREN HISTORIA'

Jose Antonio Azpiatzuren hitzaldia, Oñati Abesbatzaren 60. urteurrenaren harira. [Kultur etxeko zine aretoan.](#)

APIRILAK 28 / 17:30-18:30

### 'EMOZIOEN GORABEHERAN BIDELAGUN'

Hizlaria: Nekane Odriozola psikomotrizista; 0-6 urteko haurren gurasoentzat. [Txaloka ludotekan.](#)

APIRILAK 28 / 19:30

### 'CEREBRO Y MÚSICA'

Gurutz Linazisoro mediku neurologoaren hitzaldia, Oñati Abesbatzaren 60. urteurrenaren harira. [Zine aretoan.](#)

APIRILAK 29 / 10:00

### 'ARO DIGITALEAN HAZTEA: PANTAILAK, SARE SOZIALAK ETA NERABEEN GARAPENA'

Hizlaria: Joana Jauregizar, psikologian doktorea (EHU). Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokia.](#)

## LITERATURA

APIRILAK 14 / 18:00



## VERDINI dantza taldearen 'DISTIRA'

APIRILAK 18, LARUNBATA, SANTA ANA ANTZOKIAN, 19:00

Desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonen osatutako dantza konpainia inklusiboa da Verdini, Isabel Verdini (Donostia, 1971) dantza irakasleak sortua, eta Oñatira dator *Verdiniren distira* ikuskizuna aurkeztera. Down sindromea duen bere iloba Haizeari laguntzarren sortu zuen Isabelek Verdini konpainia, dantzaren bidez pertsona guztien gaitasunak garatzen laguntzeko eta, noski, desgaitasunen bat duten pertsonen inklusioa bultzatzeko. Hain zuzen ere, Donostiako Urrezko Danborra jaso zuen Isabel Verdini 2024an, egiten ari den lan ederragatik. Oraingoan, esan bezala, Oñatin ikusiko ditugu oholza gainean distira egiten.



## 'Lan Ederra' argazki erakusketa

APIRILAK 13-24, KULTUR ETXEAN,  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA 18:00-20:00

Erretratuan espezializatutako argazkilaria den Nara Domínguez eskoriatzarraren 'Lan Ederra' argazki erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean. Euskal Herriko kultura eta nortasuna urte luzez sostengatu dituzten lanbide tradizionalei begirada pausatua eskaintzeko asmoz sortutako proiektua da. Dominguezek beren lan espazioetan erretratatu ditu artisauak, tresnei ere arreta berezia eskainiz. Xehetasun horiek fotografatzea istorioak kontatzeko modu bat ere bada, eskulanaren arrastoa eta eskuekin egindako lanaren balioa aitortzeko.



Argk.: Noticias de Gipuzkoa

### ANE ZUBELDIA IDAZLEAREKIN TETULIXAN

Zubeldiaren 'Kontra' poema liburuari buruzko tertulixa, Itziar Ugartek gidatua. [Udal liburutegian.](#)

APIRILAK 22/ 19:00

### IRAKURKETA PERFORMATIBOA

'Guztia urruntzea da ' poema liburuan oinarritutako irakurketa performatiboa egingo du Hasier Larretxea idazleak. [Kultur etxeko zine aretoan..](#)

## MUSIKA

APIRILAK 8 / 19:00

### RYOSUKE KIYASU + MURSEGO

Burrunda faktoriak antolatuta. Ryosuke

kaxa-bakarlaria, eta Mursego folk eta pop abeslaria. [Antxinenan.](#)

APIRILAK 19 / 13:00

### MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

'Emozioak Zimerrekin' izenburupean, Oñatiko musika bandaren denboraldiko 5. kontzertua. [Zubikoa pilotalekuan.](#)

APIRILAK 25 / 20:00

### HAMARRATZ+INGUMA+LEHEN LERROA+LEE KORE + REBEL NOISE

'Antifa' Jaialdiaren baitan. [Gaztelekuan.](#)

## TXAPELKETAK

APIRILAK 25 / 10:00etan hasita


### MUS TXAPELKETA



## Haurrentzako ipuin kontaketa saioa

APIRILAK 23 / 16:00

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 4-5 urteko haurrentzako saioa egongo da, Pello Añorga idazle eta ipuin kontalariaren eskutik. Gonbidapenak apirilaren 19tik aurrera. [Haur liburutegian.](#)



## ALOÑAKO IGOERA

APIRILAK 26 / 09:30

Hilaren 26an, igandea, jokatu da XXI. Aloñako Igoera. Goizeko 9.30etan abiatuko dira herriko plazatik 300 korrikalari eta ohiko ibilbidea osatu beharko dute, Aloña, Buetraitz, Akaitz, Arriurdin eta Artzanburu gainetatik igaroz (22,6 km / 1868 m+). Iaz, Aitor Ajuria (2:02:36) eta Oihana Kortazar (2:37:47) gailendu ziren. Hirugarren txapela izan zen bien tzat. Oñatiarren artean, Xabi Urbina (2:20:33) eta Ainara Urbarri (2:43:40) izan ziren azkarrenak.

Lagun Lekuko II. Mus Txapelketa. Goizeko 10etan hasita sailkapenak jokatu dira, liga sisteman. 16:00etatik aurrera finalak, goizean sailkatuen artean. Izen-ematea (20€): apirilaren 22a baino lehen, 645711019 (Iñaki) zenbakira deituta edo whatsapppez. Sariak: %50 eta txapela, eta hurrengo hiru bikoteentzat %25, %15 eta %10 Bikoteko kide bat Oñatikoa izan beharko da. [Eltzian.](#)

# ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gazteboak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

### APIRILAK 9 - 13

ZINE KLUBA:

**SORRY BABY**

(BIKOIZTUA)

NAGUSIAK:

**CUMBRES**

**BORRASCOSAS**

**GAZTETXOAK:**

**GANGSTER TXIKIA**

(EUDKARAZ)



### APIRILAK 23 - 27

ZINE KLUBA:

**MANAS (VOSE)**

NAGUSIAK:

**PROYECTO**

**SALVACIÓN**

**GAZTETXOAK:**

**MARACUDAREN**

**MITOA**



### APIRILAK 16 - 20

ZINE KLUBA:

**PILLION (VOSE)**

NAGUSIAK:

**LAPONIA**

**GAZTETXOAK:**

**SUPER MARIO**

**GALAXY:**

**LA PELICULA**



### APIRILAK 30 - MAIATZAK 4

ZINE KLUBA:

**LA HIJA PEQUEÑA**

(VOSE)

NAGUSIAK:

Zehaztu barik

**GAZTETXOAK:**

Zehaztu barik



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16**

Apirilak 20, 21, 29 eta 30. Maiatzak 1, 2 eta 3.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22**

Apirilak 7, 15, 16, 24, 25 eta 26. Maiatzak 4 eta 5.

### GARATE

**Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58**

Apirilak 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28. Maiatzak 6 eta 7.

### ULDAIN

**Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28**

Apirilak 10, 11, 12, 13, 14, 22 eta 23. Maiatzak 8, 9 eta 10.

## ODOL ATERALDIA

**APIRILAK 17 / 16:30-20:30**

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

## MERKATU TXIKIA

**GARAJE BILA** Alokairuan hartzeko edo erosteko garajea nahi nuke, Kale Zarra inguruan. 688 663 258.

**LANA** Aste barruan zehar edozein arlotan lan egiteko prest dagoen mutila. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Deitu: 604 144 732

**ALOKATZEKO ETXE BILA** 5 laguneko familiak (bikotea + 3 seme-alaba nerabe) alokairuan hartzeko etxebizitza behar du. Lan kontratu egonkorra daukate eta baita erreferentziak ere. 632928096

**ALOKAIRURAKO ETXE BILA** Bikote arduratsua etxe bila. Lan egonkordun bikote lasaia eta arduratsua gara. Ez-erretzaileak eta erreferentziadunak. 602 803 590

## MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.  
[kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)  
943 78 20 72



Naturatik datorren berrikuntza.